

ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)



BEURKO BHI

Eguneratuta: 2024ko azaroa

ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	6
1. artikulua. Zentroaren izena, irakaskuntzak eta ezaugarriak.....	6
I. TITULUA: BEURKO INSTITUTUKO ANTOLAMENDUA.....	7
I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK.....	7
2. artikulua. Gobernu-organoak.....	7
3. artikulua. Eskola-komunitatearen partaidetza.....	7
4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak.....	8
II. KAPITULUA. TALDEKO GOBERNU-ORGANOAK.....	8
I. ATALA. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA: ESKOLA KONTSEILUA.....	8
5.artikulua. Ordezkaritza Organo Gorenaren ezaugarriak eta osaera.....	8
6.artikulua. Eskola Kontseiluaren zereginak.....	9
7.artikulua. Eskola Kontseiluko funtzionamendu-erregimena.....	9
8. artikulua. Eskola Kontseilua hautatzea eta berritzea.....	10
9. artikulua. Eskola Kontseiluko batzordeak.....	10
II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA.....	11
10. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak, eskumenak eta osaera.....	11
11. artikulua. Irakasleen klaustroaren funtzionamendu-erregimena.....	11
III ATALA. ZUZENDARITZA-TALDEA.....	12
12.artikulua. Zuzendaritza-taldearen osaera eta funtzionamendua.....	12
III KAPITULUA: PERTSONA BAKARREKO AGINTE- ORGANOAK.....	13
13. artikulua. Zuzendaria.....	13
14. artikulua. Ikasketaburua.....	13
15.artikulua. Idazkaria.....	14
IV KAPITULUA: PARTAIDETZA ETA ELKARLANERAKO ORGANOAK.....	14
I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO BERARIAZKO ORGANOAK.....	14
16.artikulua. BEURKO BHIko ikasleen parte-hartze eta koordinazio-organoak.....	14
17.artikulua. Taldeko ordezkariak.....	14
18. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak.....	15
19. artikulua. Ordezkarien Batzordea.....	16
20. artikulua. Ordezkarien Batzordearen funtzioak.....	16
21.artikulua. Ikasleen asanblada.....	17
II ATALA. GURASOEN PARTE HARTZEKO ORGANOAK. GURASOEN BATZARRA.....	17
22.artikulua. Gurasoen Batzarra.....	17
III ATALA. IKASTETXEKO KIDE GUZTIEN PARTAIDETZA ETA ELKARLANERAKO BESTE ORGANO BATZUK.....	18
23. artikulua. Ingurumen Batzordea.....	18
24. artikulua. Elkarbizitzarako behatokia: BIZIKASI.....	18
25. artikulua. Digitalizazio batzordea.....	19
26. artikulua. HNP batzordea (Hizkuntza Normalkuntza Proiektua).....	19
V KAPITULUA: IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK.....	20

27. artikulua. Beurko BHIko irakaskuntza koordinatzeko organoak.....	20
I. ATALA. ORIENTABIDE- DEPARTAMENTUA.....	20
28. artikulua. Orientabide-departamentuaren osaera.....	20
29. artikulua. Orientabide-departamentuaren funtzioak.....	20
II ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK EDO MINTEGIAK.....	21
30. artikulua. Didaktika-Departamentuen ezaugarriak eta osaera.....	21
31. artikulua. Didaktika-Departamentuen eta Departamentu-buruen funtzioak eta eskumenak.....	21
III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA.....	21
32. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera.....	21
33. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak.....	22
IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE-TALDEEN IRAKASLEAK.....	22
34. artikulua. Tutoreen funtzioak.....	22
35. artikulua. Ebaluaketa Batzordea.....	23
II TITULUA. FUNTZIONAMENDU ETA BIZIKIDETZAKO ARAUAK.....	23
I. KAPITULUA. PRINTZPIO OROKORRAK.....	23
36. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak.....	23
II KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	24
I ATALA. IKASLEEN ESKUBIDEAK.....	24
37. artikulua. Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute. Heziketa honek, honako baldintza hauek beteko ditu:.....	24
38. artikulua. Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.....	24
39. artikulua. Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.....	25
40. artikulua. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea dute.....	25
41. artikulua. Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute.....	26
42. artikulua. Ikasleek beren osotasun fisiko, psikiko eta morala, beren nortasun eta duintasun pertsonala errespetatuak izateko eskubidea dute eta inola ere ezingo zaie tratu laido garri edo degradatzailek eman ez eta tratu txar fisiko edo morala duten zigorrik eman ere. Edozein eraso fisiko edo moralaren kontrako babesa jasotzeko eskubidea dute.....	27
43. artikulua. Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatuak izateko.....	27
44. artikulua. Ikasleek ikastetxean biltzeko eskubidea dute, hau da, bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolako kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza helburu duten jarduerak gauzatzeko.....	28
45. artikulua. Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.....	28
46. artikulua. Ikasleek elkartzeko eta elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute, indarrean dauden legeetan xedatutakoarekin bat.....	28

47. artikulua. Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden arauak jarraiki.....	28
48. artikulua. Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute..	28
49. artikulua. Ikasleek hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte.....	29
50. artikulua. Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuetan.....	29
51. artikulua. Ikasleek ingurumen-baldintza egokietan eta kalitateko ikastetxe jasangarri batean ikasteko eskubidea dute. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek konpromisoa daukate ikastetxearen garapen jasangarriarekin.....	29
52. artikulua. Ikasleek euskara ardatz izango duen hezkuntza sisteman ikasteko eskubidea dute.....	30
II ATALA. IKASLEEN BETEBEHARRAK.....	31
53.artikulua. Ikasteko betebeharra.....	31
54.artikulua. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.....	31
55.artikulua. Bertaratzeko betebeharra.....	31
56.artikulua. Bizikidetzaz errazteko betebeharra.....	31
57.artikulua. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.....	32
58.artikulua. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.....	32
59.artikulua. Instalazioak errespetatzeko betebeharra.....	32
60.artikulua. Ingurumen osasuntsu eta eskola jasangarriaren aldeko konpromisoa hartzeko betebeharra.....	33
61. artikulua. Institutuko espazio guztietan euskara erabiltzeko betebeharra.....	33
III KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK BERMATZEKO ARAUAK.....	33
I. ATALA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO ARAUAK.....	33
62.artikulua. Printzipio orokorrak.....	33
63.artikulua. Ikasleen segurtasunarekin erlazionaturiko eskubideak betetzea.....	33
64.artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioaren eskubideen babesa.....	35
65.artikulua. Biltzeko eskubidearen babesa.....	36
66.artikulua. Adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea.....	38
67.artikulua. Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboaren eskubidea betetzea.....	38
68.Artikulua: Irakasleenganako ezadostasun larriak.....	40
69.artikulua. Ingurumen osasuntsuan ikasteko eskubidearen babesa.....	41
70. artikulua. Ikastetxeko harreman hizkuntza euskara izatea/Ingurune euskaldunean bizi ahal izateko laguntza ematea.....	42
II ATALA. IKASLEEN BETEBEHARRAK BERMATZEKO ARAU BEREZIAK.....	42
71.artikulua. Printzipio orokorra.....	42
72 artikulua. Etortzeko betebeharra bermatzeko prozedurak.....	43

73. artikulua. Instalazioak errespetatzeko betebeharra bermatzeko prozedura.....	45
III ATALA. IKASLEEK BETEBEHARRAK EZ BETETZEA ZUZENTZEKO ARAUAK ETA PROZEDURAK.....	45
74. artikulua. Printzipio orokorra.....	45
75. artikulua. Jokabide desegokiak.....	45
76. artikulua. Jokabide desegokiak zuzentzeko prozedura.....	46
77. artikulua. Jokabide desegokiak zuzentzeko neurriak.....	47
78. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.....	47
I ERANSKINA.....	48
BARNE-ARAUAU BEURKO TXIKIAN.....	48
I ERANSKINA.....	53
BARNE-ARAUAU BEURKO HANDIAN.....	53
II ERANSKINA:.....	60
IKTko ERABILERA ONARGARRIAK ETA ARDURATSUAU.....	60
III ERANSKINA:.....	64
KUDEAKETA SOLIDARIOAREN PROGRAMAREN TESTU LIBURUAU ERABILTZEKO ARAUAU.....	64
IV ERANSKINA:.....	65
JANTOKIKO ARAUAU.....	65
V ERANSKINA:.....	67
ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETUA.....	67
VI ERANSKINA:.....	72
ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETUA.....	72
NEURRI ZUZENTZAILEAK.....	72

BEURKO BHIko ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)

ATARIKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Zentroaren izena, irakaskuntzak eta ezaugarriak

1.1. BEURKO Bigarren Hezkuntzako Institutua ikastetxe publikoa da. Bertan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ematen dira, D ereduari. Erreferentziazko zentroa da Batxilergo artistikorako Ezkerralde, Meatzalde eta Enkarterriko ikasleentzako.

1.2. Euskal Eskola Publikoaren Legearen 3.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, BEURKO Institutuak ondoko ezaugarri hauek ditu: plurala eta demokratikoa da, akonfesionala, euskal gizartearen beharrak ase ditu, inguru

sozial eta kulturean sustraiturik dago, parte hartzailea da, desberdintasunak konpentsatzen ditu eta aniztasuna zaintzen du.

1.3. BEURKO Institutuak bere egin ditu Euskal Eskola Publikoaren Legearen 3.2. artikuluan ezarri diren xedeak. Ikastetxe honetako gobernu-organo, partaidetza-organo eta koordinazio didaktikorako organo guztiek, irakasleek eta irakasleak ez diren ikastetxeko langile guztiek goian aipaturiko helburuak betetzera bideratuko dute beren jarduera.

1.4. BEURKO Institutuak ikastetxeko bizikidetzaren oinarri gisa, bere eskubideak arduraz bete eta gainerakoen eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.

1.5. BEURKO Institutuak, D eredukoa izanik, lehentasunezko konpromisoa hartu du eskola komunitatearen euskalduntasunarekin; hau da, eskola kideen euskararen ezagutzarekin eta erabilerarekin. Konpromiso hori gauzatzeko eragile nagusia Hizkuntza Normalkuntza Proiektua bada ere, guztion inplikazioa ezinbestekoa da.

Baita ingurumenarekin **Agenda 30 proiektuaren** bidez: ingurumen-hezkuntza programa bat denez, ingurumen-arazoen konponbidean parte hartzeko ezaguera, gaitasuna, jarrera, motibazioa eta konpromisoa garatzea da haren xede nagusia.

Beurko BHI-k bestetik, beste proiektu eta programen bitartez, Hezkidetzarekin, Bizikidetzarekin eta indarkeriaren aurkako prebentzioarekin ere konpromisoa hartzen du.

Berdintasunean oinarritutako hezkuntza du oinarria gure zentroak eta aldi berean, sexu dibertsitatea errespetatzen eta onartzen du.

Eleaniztasunarekin lotuta, Beurkok atzerriko bi hizkuntza indartzeko apustua egiten du.

I. TITULUA: BEURKO INSTITUTUKO ANTOLAMENDUA

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

2. artikulua. Gobernu-organoak

2.1. BEURKO Institutuak Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organoak nahiz lagun bakarreko gobernu-organoak ditu.

- a) Taldekoak: Ordezkaritza Organo Gorena, Irakasleen Klaustroa eta Zuzendaritza taldea
- b) Bakarrekoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria

2.2. Ikasturte bakoitzean ikastetxean dagoen ikasle kopuruaren arabera eta ikasturteko Antolakuntza Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz, BEURKO Institutuan lagun bakarreko beste gobernu-organo bat egon daiteke: **Zuzendariordea**.

2.3. Euskal Eskola Publikoaren Legeak 30.2 artikuluan emandako autonomia aske egikaritzeko, aipatutako organoez gain, Institutuak **1. zikloko Delegatua** dauka.

3. artikulua. Eskola-komunitatearen partaidetza

3.1. BEURKO Institutuko ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioako eta zerbitzuetako langileek eta Barakaldoko Udalak Ikastetxearen kudeaketan parte har dezakete **Ordekaritza Organo Gorenaren bidez (OOG)**

3.2. Badira BEURKO Institutuaren jardunean parte hartuko duten beste organo

espezifikoko batzuk. Euskal Eskola Publikoaren Legeak zehazten duenarekin bat eginez, **gurasoen Asanblada** eta **ikasleen parte hartze-organoak** izango dira.

3.3. BEURKO Institutua ikastetxeko ikasle- nahiz guraso-elkarteen egoitza izango da. Ikastetxeak espazioa utziko die elkarte horiei haien jarduera gauza dezaten. Horrez gain, Institutuak ikastetxearen bizitzan parte hartzea sustatuko du, hezkuntza-, kultura- eta kirol-jarduerak bultzatuz.

4. artikulua. Koordinazio didaktikorako organoak

4.1. BEURKO Institutuko koordinazio didaktikorako organoak hauek izango dira: **Tutoretzak, Ebaluazio-taldea** (taldeko irakasleak), **Didaktika-departamentuak** edo **Mintegiak, Orientazio Departamentua** eta **Koordinazio Pedagogikorako Batzordea**, Mintegi-buruek, Ikasketa-buruak eta Zuzendariak osaturikoa.

II. KAPITULUA. TALDEKO GOBERNU-ORGANOAK

I. ATALA. ORDEZKARITZA ORGANO GORENA: ESKOLA KONTSEILUA

5.artikulua. Ordezkaritza Organo Gorenaren ezaugarriak eta osaera

5.1. BEURKO Institutuko OOGren bidez, hezkuntza-komunitateko kide guztiek hartuko dute parte ikastetxearen kudeaketan. Organo horrek **Eskola Kontseilua** izena hartuko du.

5.2. BEURKO Institutuko Eskola Kontseilua honako partaidez osaturik egongo da:

- a) Zuzendaria, buru izango dena.
- b) Ikasketa-burua.
- c) Klaustroak aukeratuko dituen 12 irakasle.
- d) Ikasleen gurasoen 9 ordezkari, horietako bat bazkide gehien dituen Ikasleen Gurasoen Elkarteak zuzenean izendatu dezakeelarik.
- e) Ikasleen 9 ordezkari.
- f) Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkari bat.
- g) Udaleko ordezkari bat.
- h) Gela Egonkorretako ordezkari bat: Laguntza-espezialista.
- i) Ikastetxeko idazkaria, Eskola Kontseiluko idazkari izango dena. Hitza edukiko du, baina botorik ez.

5.3. Zuzendaria kanpoan bada, zuzendariordea izango da Eskola Kontseiluko buru. Zuzendariorderik ez badago, ikasketaburua, edo antzinasunetik handiena duen ikastetxeko Eskola Kontseiluko irakaslea.

5.4. Idazkaria kanpoan bada, antzinasunetik handiena duen ikastetxeko Eskola kontseiluko irakasleak ordezkatzeko du eta akta betetzeaz arduratuko da.

6.artikulua. Eskola Kontseiluaren zereginak

6.1. Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 31.2. artikuluan aipatzen dituenak dira. Halaber, aipaturiko artikuluen **k** paragrafoan ezarritakoari jarraituz, urteko egutegia eta ordutegia onartzea Eskola Kontseiluaren esku egongo da, egun eta irakastorduen zenbaketaren arabera, eta beti ere, Hezkuntza Administrazioak dioena beteko du.

7.artikulua. Eskola Kontseiluko funtzionamendu-erregimena

7.1. Eskola Kontseiluko ohiko bilerak kide guztiak bertaratu ahal diren egun eta orduetan egingo dira. Zuzendariak bileraren deialdia bidaliko die kideei. Deialdiarekin batera, honako hauek helaraziko dizkie: bileraren gai-zerrenda; eztabaidagai izango diren dokumentuak; eta, hala badagokio, onespena. Kideek bilera egin baino **astebete** lehenago jasoko dituzte agiri horiek.

7.2. Ezohiko bilerak ere egin daitezke, premiazko gaiak lantzeko; betiere, bilera egin baino **berrogeita zortzi** ordu lehenago deitzen badira.

7.3. Eskola Kontseilua, gutxienez, urtean **bi bider** bilduko da, ikasturtearen hasieran Urteko Plana ez baitu eta onartzeko, eta amaieran urteko Memoria-txostena onartzeko. Batzartuko da, halaber, Batzorde Iraunkorrak, Zuzendariak edo Kontseiluko kideen **heren** batek eskatzen badu.

7.4. Idazkariak hartzen diren akordioen akta jasoko du.

7.5. Eskola Kontseiluaren gehienezko iraupena bi ordukoa izango da.

7.6. Eskola Kontseiluak **gehiengo soilez** hartuko ditu akordioak, kasu hauetan izan ezik:

7.6.1. Hezkuntza-proiektua, Urteko Plana eta AJA nahiz AJAren aldaketak onetsi behar direnean. Horiek guztiak **gehiengo osoz** onartuko dira.

7.6.2. Zuzendaria kentzeko proposamena onartu behar denean. Proposamen hori, **bi hereneko gehiengoaz** onartuko da.

8. artikulua. Eskola Kontseilua hautatzea eta berritzea

8.1. Bi urtetik behin, Eskola Kontseiluaren kideen erdiak berrituko dira. Berritze hori txandaka gauzatuko da, halaxe ezarri baita OOGak arautzen dituen Dekretuan eta Hezkuntza Sailak argitaratzen dituen deialdietan.

9. artikulua. Eskola Kontseiluko batzordeak

Eskola Kontseiluan indarrean dagoen Batzordea ondoko hau izango da:

9.1. Batzorde iraunkorra

9.1.1. Eginkizunak:

Euskal Eskola Publikoaren Legeak 36.3. artikuluan emandako funtzioak beteko ditu:

- a) Kudeaketa proiektua, formakuntza-ekintzak, ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak prestatzea.
- b) Urteko Memoria-txostena prestatzea Eskola Kontseiluan eztabaidatzeko.
- c) Gai-ordena prestatzea, ekonomia kudeatzea, aurrekontuak onartzea eta haren esku uzten diren beste batzuk.

9.1.2. Osaera:

Zuzendaria, ikasketaburua, eta estamentu bakoitzetik ordezkari bi: irakasle bi, aita-ama bi eta ikasle bi. Irakasle hauetatik, bat Idazkaria izango da, gai ekonomikoak tratatzeko eta aktak egiteko. Erabakiak boto haztatuaren (ponderatuaren) bidez hartuko dira.

II. ATALA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

10. artikulua. Irakasleen klaustroaren ezaugarriak, eskumenak eta osaera

10.1. Irakasleen klaustroa, BEURKO Institutuko aginte-organoetako bat izateaz gain, irakasleen berezko parte-hartze organoa da, baita koordinazio didaktikorako ikastetxean dagoen organo gorena ere. Klaustroak, halaber, ikastetxeko hezkuntza alderdi guztiak planeatzeko, koordinazio erabakiak hartzeko eta informazioa emateko ardura du. Bere eginkizunak Euskal Eskola Publikoaren Legeak 35. artikuluan zehazten ditu.

10.2. Klaustroak zuzendaria du buru, eta ikastetxean irakasle aritzen diren guztiek osatzen dute. BEURKO Institutuko idazkaria klaustroko idazkaria ere bada.

10.3. Zuzendaria egon ezean, zuzendariordea izango da klaustroko buru. Zuzendariorderik existitzen ez bada, ikasketaburua. Eta ez zuzendaririk, ez ikasketabururik ez badago, antzinatasunik handiena duen irakaslea izango da klaustroko buru. Idazkaririk egon ezean, aitzitik, irakaslerik berrienak beteko ditu idazkariaren funtzioak.

11. artikulua. Irakasleen klaustroaren funtzionamendu-erregimena

11.1. Klaustroa **hiruhilekoan behin** bilduko da gutxienez. Kurtso hasieran, derrigorrez bilduko da, ikastetxeko ikasturtearen antolaketa eta Eskola Jardueraren programazioari onarpena emateko. Kurtso amaieran ere bilduko da, ikasturtearen garapenari buruzko urteko oroimen-txostena burutzeko. Gainera, Zuzendariak, Zuzendaritza-Taldeak edo Irakasleen **%25ak** eskatzen duen guztietan batzartuko da.

11.2. Idazkariak harturiko erabakien akta jasoko du.

11.3. Klaustroko kide guztiek derrigorrez joan behar dute klaustroaren bileretara.

11.4. Klaustroan boto delegatua onartuko da ondorengo baldintza

betetzekotan: aldez aurretik jakinda irakasle bat ezin izango dela klaustrora etorri institutuan antolaturiko EKE batean parte hartuko duelako, edo ez etortzea guztiz justifikaturik balego, bere botoaren adierazpena utzi ahal izango du idatzita, edo kide bati ordezkaritza utziko dio.

11.5. **Ohiko bileretarako** deia bilera baino **astebete lehenago** egingo da gutxienez. Salbuespen moduan, premiazko auziren bat badago, ezohiko bileretarako deiak **48** orduko aurrerapenaz egin daitezke.

11.6. Irakasleek ekarritako proposamenak bozkatu ahal izateko, Zuzendaritza-taldeak aldez aurretik ezagutu beharko ditu. Klaustroan sortuz gero, bozkatuko dira, betiere irakasleriaren **heren batek** bozketa onartzen badu. Premiarik ez badago, hausnarketa epea emango da eta hurrengo klaustroan bozkatuko dira, beti Klaustroko **heren baten** onarpenaz.

11.7. Eskola Kontseiluan bozkatzekoak diren irakasleen proposamenak Zuzendaritza taldeari jakinarazi beharko zaizkio.

Irakasleriaren **heren baten** laguntza beharko dute aurkeztu, eztabaidatu eta bozkatu ahal izateko eta **gehiengo sinplez** aterako dira.

III ATALA. ZUZENDARITZA-TALDEA

12.artikulua. Zuzendaritza-taldearen osaera eta funtzionamendua

12.1. Pertsona bakarreko aginte-organoek Zuzendaritza-taldea osatzen dute. BEURKO Institutuko Zuzendaritza-taldea ondoko organo hauek osatzen dute: **Zuzendaria**, **Zuzendariordea**, **Ikasketaburua**, eta **Idazkaria**. Gainera, Zuzendaritza-taldeko zenbait eskumen **DBH 1. zikloko Delegatuaren** eskuz egongo dira.

12.2. Zuzendaritza-taldeak Euskal Eskola Publikoaren Legeak 36. artikuluan esleitzen dizkion funtzioak izango ditu, baita Eskola Kontseiluak edo irakasleen klaustroak bere esku uzten dituztenak ere.

12.3. Zuzendaria aukeratzeko eta Zuzendaritza-taldea osatzeko prozedura otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuak arautzen du, eta baita maiatzaren 8ko 61/2012, apirilaren 1eko 46/2014 eta abenduaren 5eko 262/2017ko

Dekretuetan ezarritako aldaketek ere. Zuzendari izateko hautagaiek merezimenduak aurkeztuko dituzte. Ikuskari batez eta Eskola Kontseiluko ordezkariez osaturiko Batzorde batek baloratuko ditu merezimendu horiek. Aukeratua izan ondoren, Zuzendariak Lurralde Ordezkarari proposatuko dizkio gainontzeko pertsona bakarreko organoak.

12.4. Zuzendaritza-taldeak astean behin ohiko bilera egingo du, eta ezohikoa egingo ditu Zuzendariak horrela eskatu edo partaideetako **bik** horrela eskatzen badute.

III KAPITULUA: PERTSONA BAKARREKO AGINTE- ORGANOAK

13. artikulua. Zuzendaria

13.1. BEURKO Institutuko Zuzendaria ikastetxearen ordezkari izango da ondorio guztietarako. Zuzendaria, halaber, Hezkuntza Administrazioaren ordezkari da ikastetxean eta ikastetxeko taldeko aginte-organoen buru da.

13.2. Zuzendariari Euskal Eskola Publikoaren Legean 34. artikulua esleitzen dizkion zereginak eta eskumenak dagozkio.

13.3. Zuzendaria aukeratzeko prozedura otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuak eta hari egindako aldaketek (12. artikuluan aipatutakoak) arautzen du zuzendaria hautatzeko prozedura.

14. artikulua. Ikasketaburua

14.1. Ikasketaburuak, zuzendaritza taldeko kide den aldetik dituen eskumenez gain, Euskal Eskola Publikoaren Legeren 41. artikuluan ezarri zaizkionak izango ditu.

14.2. Ikasketaburua, zuzendariaren agindupean, irakasleen buru izango da erregimen akademikoarekin zerikusia duten auzi guztietan. Horrez gain, departamentuko buruen eta tutoreen jarduera koordinatuko du.

14.3. Zuzendariak 22/2009 Dekretuaren eta hari egindako aldaketen (12. artikuluan aipatutakoak) arabera, Ikasketa buruaren izendatze proposamena aurkeztuko du Delegatuaren aurrean, Klaustroari eta Eskola Kontseiluari jakinarazi ondoren.

15.artikulua. Idazkaria

15.1. Idazkariak zuzendaritza taldeko kide denetik dituen eskumenez gain, Euskal Eskola Publikoaren Legeak 42. artikuluan ematen dizkion eginkizunak eta eskumenak izango ditu.

15.2. Zuzendariaren agindupean, ikastetxean aritzen diren administrazioako eta zerbitzuetao langileen buru izango da.

15.3. Zuzendariak 22/2009 Dekretuaren eta hari egindako aldaketen (13. orrialdean aipatutakoak) arabera, Idazkaria izendatze proposamena aurkeztuko du Delegatuaren aurrean, Klaustroari eta Eskola Kontseiluari jakinarazi ondoren.

IV KAPITULUA: PARTAIDETZA ETA ELKARLANERAKO ORGANOAK

I. ATALA. IKASLEEK PARTE HARTZEKO BERARIAZKO ORGANOAK

16.artikulua. BEURKO BHIko ikasleen parte-hartze eta koordinazio-organoak

16.1. BEURKO BHIin ikasleek parte hartzeko berariazko organo hauek daude: Taldeko ordezkariak, ordezkarien Batzordea eta Ikasleen Asanblada.

17.artikulua. Taldeko ordezkariak

17.1. Ikasturtearen lehenengo hilabetea eta ikasturte osorako, ikasle talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du, zuzeneko eta isilpeko bozketaren bidez, tutorearen aurrean. Ordezkariorde bat ere aukeratuko da, ordezkariaren lekua hartzeko hau kanpoan edo gaixorik dagoenean. Halaber, Ordezkariordeak beti laguntza eskainiko dio ordezkariari.

17.2. Taldeko ikasle guztiak izango dira hautesle eta hautagai, kandidaturarik aurkeztu beharrik gabe. Bozketan, ikasle bakoitzak **izen bat** jarriko du boto-txartelean. Botorik gehien jaso duen ikaslea ordezkari izango da, eta boto gehien jaso duen bigarrena, aldiz, ordezkariorde. Berdinketarik izanez gero, ikasleen ordezkari hautetsietan zaharrena izango da, eta ordezkariorde hurrengoa.

17.3. Ordezkariek eta ordezkariordeek dimisioa aurkeztu ahalko dute, Zuzendaritzari zuzendutako idazki arrazoitu baten bidez.

17.4. Ikaskideek ordezkaria eta ordezkariordeak ezeztatu ahal izango dituzte, baina aldez aurretik tutoreari txosten arrazoitua bidali beharko diote, taldekideen gehiengo absolutuaren onespenezekin. Kasu honetan hauteskunde berrietarako deialdia egingo da, hamabost eguneko epean. Modu berean jardungo da Zuzendaritzak onartzen dituen dimisioen kasuan.

17.5. Ezin izango da ordezkariak zigortu Araudi honen arabera bete beharreko funtzioak bete izanagatik.

18. artikulua. Taldeko ordezkarien funtzioak

18.1. Ondoko hauek dira taldeko ordezkarien funtzioak:

18.1.1. Taldea ordezkatzea, irakasle, tutore eta Zuzendaritza taldearen aurrean.

18.1.2. Aginte-organismo eta Koordinazio Didaktikorako Organoen taldeko iradokizunak eta kexak helaraztea.

18.1.3. Bizikidetzaren sustatzea ikasturteko ikasleen artean

18.1.4. Bere taldean sortuko diren eztabaidak eta debateak moderatzea

18.1.5. Zuzendaritza taldeak emandako argibide, informazio eta berriak taldeari transmititzea

18.1.6. Ikastetxeko materiala eta instalazioak behar bezala erabiltzen

diren zaintzea 18.1.7. Ikastetxearen funtzionamendu egokiaren alde lan egitea.

18.1.8. Ikastetxeko aginte-organismoek esleitzen dizkieten funtzioak

19. artikulua. Ordezkarien Batzordea

19.1. Ikasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten organoa Euskal Eskola Publikoaren Legeak 30. artikuluan aipatzen duen Ordezkarien Batzordea da.

19.2. Batzordea taldeko Ordezkariek eta ikastetxeko Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariek osatuko dute.

20. artikulua. Ordezkarien Batzordearen funtzioak

20.1. Hauek dira Ordezkarien Batzordearen funtzioak:

20.1.1. Talde-ordezkariak koordinatzea.

20.1.2. Ikasleen Asanbladak prestatu eta deitu, aldez aurretik Zuzendaritzari berri emanez eta erabakiak jakinaraziz, erabakiek klaseen funtzionamenduarekin zerikusia badute.

20.1.3. Talde-ordezkariei aholkularitza eta laguntza eskaintzea, eta talde edo ikasturte bakoitzak dituen arazoei buruzko informazioa ematea

20.1.4. AJA aldatzeko proposamenak egitea, beren eskumenen barruan

20.1.5. Eskola Kontseilurako txostenak prestatzea, bai Ordezkarien Batzordearen berezko ekimenez, bai Eskola Kontseiluak hala eskatuta

20.1.6. Ikasleei Ordezkarien Batzordearen jardueri buruzko informazioa ematea

20.1.7. Ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko proposamenak egitea.

20.1.8. Ikasleengan eragin zuzena duen beste edozein jarduera proposatu, egin edota erabaki.

20.2. Bilerak atsedenaldietan egingo dira eta Batzordeko edonork dei dezake. Bilera egin ondoren berri emateko denbora utziko da, baina betiere, klaseak oztopatu gabe.

21.artikulua. Ikasleen asanblada

21.1. Zentroko ikasle guztiek osatzen dute.

21.2. Beren zereginak ondoko hauek dira:

- Ikasleei dagozkien erabakiak hartu
- Ikasleen antolaketa sistema finkatu
- Eskola Kontseilurako beren ordezkariak aukeratu
- Institutuko organo desberdinei proposamenak egin

21.3. Ikasleen Asanbladarako deia Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariak edo ikasleen edozein taldek proposa dezakete, baina Ordezkarien Batzordeak onartu beharko du gehiengo sinplez.

II ATALA. GURASOEN PARTE HARTZEKO ORGANOAK. GURASOEN BATZARRA.

22.artikulua. Gurasoen Batzarra

22.1. Beurko BHIko gurasoek Gurasoen Batzarraren bidez, hartuko dute parte gurasoek ikastetxearen kudeaketan.

22.2. Ikasle guztien gurasoek edo legezko tutoreek osatuko dute.

22.3. Gurasoen Batzarrak honako funtzioak beteko ditu:

22.3.1. Egokitzen jotzen dituen proposamenak ikastetxeko gainerako organoetara luzatzea, organo horien eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. Helarazi diezaieke, beraz, irakaskuntza-jardueren, prestakuntza-jardueren, eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa nahiz urteko kudeaketa programa gauzatzearen balioespena.

22.3.2. Zuzendaritza taldearekin eta klaustroarekin harremanetan egotea, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren garapenean ahalik eta lankidetzaren handiena lortzeko.

22.3.3. Gurasoen ekimena sustatzea, ikastetxearen bizitzan era aktiboan parte har dezaten.

22.3.4. Eskola Kontseilurako Ordezkariak aukeratzea.

22.4. Gurasoen Batzarrak **urtean bitan** bildu beharko du **derrigorrez**, baita EskolaKontseiluan proposamen edo informazio bereziren bat eman nahi duenean, edo partaideen %**10ak** horrela eskatzen duenean.

III ATALA. IKASTETXEKO KIDE GUZTIEN PARTAIDETZA ETA ELKARLANERAKO BESTE ORGANO BATZUK.

23. artikulua. Ingurumen Batzordea

23.1. **Agenda 30** Proiektuaren Koordinazio organoa da. Ondoko partaide hauek osatzen dute:

- 8 ikasle (maila bakoitzeko 1 gutxienez)
- Zuzendaritzako kide 1
- 5 irakasle. Hauetatik 2 Proiektuaren koordinatzaileak dira
- Guraso 1 edo 2
- Ez irakasle bat (atezain 1)

23.2. Eginkizunak ondoko hauek dira:

- Ikastetxearen zonan antolatuko diren ikastaroetan, Prestakuntza-saioetan, mintegietan, eta foroetan parte hartzea.
- Foroetan hartutako erabakiak aurrera ateratzea.
- Ingurumen Batzordea dinamizatzea.
- Ingurumenari buruzko edukiak curriculumetan sartzea, eta jarduerak proposatzea.
- Dokumentazioaz arduratzea.
- Erakundeekin eta beste ikastetxeekin koordinatzea.
- Eskolako Agenda 30aren adierazleak definitzea eta proposatzea.
- Adierazleak erabiliz, ebaluazioa egitea.

24. artikulua. Elkarbizitzarako behatokia: BIZIKASI

24.1. BIZIKASI eskola jazarpenaren aurkako eta elkarbizitza positiborako ekimena da. Bere helburu nagusia da ikastetxea biolentziarik gabeko eta elkarbizitza positiborako espazioa izatea, ikasleen eta gainerako hezkuntza-komunitatearen konpromisoaren bidez.

24.2. Talde dinamizatzailea (BAT taldea) Bizikasi ekimenaren koordinazio organoa da. Gutxienez, ondoko partaide hauek osatuko dute taldea:

- Zuzendaria
- Ikasketa burua
- Orientatzailea
- Elkarbizitza eremuan sentsibilizatutako irakasle bat

25. artikulua. Digitalizazio batzordea:

25.1. Helburu nagusia ikastetxeak duen Proiektu Digitala garatzea da: metodologia aldaketak bultzatuko dira, irakaskuntza, administrazio, informazio eta komunikazio prozesuak digitalizatzeko.

25.2. Gutxieneko osaera:

- Zuzendaritzako kide bat (Ikasketa Burua)
- Digitalizazio arduraduna.
- Berrikuntza arduradunak (BeAtarrak): Berritzegunearekin koordinatzen dira eta aholkulariak dira.

26. artikulua. HNP batzordea (Hizkuntza Normalkuntza Proiektua)

Helburu nagusia: Euskararen normalizazioan Beurko ikastetxean emandako urratsak sendotzea eta indartzen jarraitzea

Gutxieneko osaera:

- Zuzendaritzako kide bat
- HNP-ko orduak dituzten irakasleak
- Normalkuntza Proiektuarekin bat egiten duten zenbait irakasle

V KAPITULUA: IRAKASKUNTZA KOORDINATZEKO ORGANOAK

27. artikulua. Beurko BHIko irakaskuntza koordinatzeko organoak

27.1. Beurko BHIko koordinazio pedagogikorako organoak ondoko hauek dira:

- 27.1.1. Orientabide-departamentua
- 27.1.2. Didaktika-departamentuak edo Mintegiak
- 27.1.3. Koordinazio Pedagogikorako Batzordea
- 27.1.4. Tutoreak
- 27.1.5. Taldeko irakasleak (Ebaluaketa Batzordea)

I. ATALA. ORIENTABIDE- DEPARTAMENTUA

28. artikulua. Orientabide-departamentuaren osaera

28.1. Orientabide-departamentua ondoko irakasle hauek osatzen dute:

- 28.1.1. Psikologia eta pedagogiako irakaslea den Orientatzailea.
- 28.1.2. Curriculum-aniztasuneko taldeen arduradun diren irakasleak
- 28.1.3. Pedagogia terapeutikoan espezializatutako maisu-maistrak eta, kasua bada, laguntzaileak.

29. artikulua. Orientabide-departamentuaren funtzioak

29.1. Orientabide-departamentuak indarrean dauden legeek agintzen dizkioten funtzioak hartzen ditu bere gain. Funtzio hauek Hezkuntzako Sailburuordeak ikasturtero ematen duen ikasturtearen antolamenduari buruzko ebazpenean agertzen dira eta Institutuak IHP n biltzen ditu.

II ATALA. DIDAKTIKA-DEPARTAMENTUAK EDO MINTEGIAK

30. artikulua. Didaktika-Departamentuen ezaugarriak eta osaera

30.1. Didaktika-Departamentuak arloen eta irakasgaien irakaskuntza antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Arlo edo irakasgai bera ematen duten irakasleak koordinatuko dituzte, baita antzeko arloak edo irakasgaiak ematen dituzten irakasleak ere.

30.2. Irakasle guztiak **astean ordubetez** bildu behar dira departamentuaren ohiko bilerak egiteko. Ez ohiko bilerak ere egingo dira Departamentu-buruak honela erabakiz gero edo Departamentuko kideen **heren batek** hala eskatzen badu.

31. artikulua. Didaktika-Departamentuen eta Departamentu-buruen funtzioak eta eskumenak

31.1. Ikasturtearen antolamenduari buruz Hezkuntza Sailburuordeak kurtso hasieran maten duen ebazpenean biltzen dira.

III. ATALA. KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA

32. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen osaera

32.1. Beurko BHIn Koordinazio Pedagogikorako Batzorde bat dago. Zuzendariak, ikasketaburuak eta Departamentu-buruek osatzen dute, ikastetxeko zuzendaria burua izanik. Departamentu-bururik gazteena izango da mintzagai dugun Batzordeko idazkari.

33. artikulua. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen eskumenak

33.1. Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen funtzio nagusia curriculum proiektua eta proiektuari egin dakizkiokeen aldaketak koordinatzea da.

33.2. Funtzio hau betetzeko ondoko eskumen hauek izango ditu, betiere, irakasleen klaustroaren zaintzapean:

33.2.1. Etapako curriculum-proiektuak lantzeko eta berrikusteko arau orokorrak ezartzea.

33.2.2. Etapako curriculum-proiektuak eta zuzenketak lantzeko eta berrikusteko prozesua ikuskatzea, zuzenketak koordinatuz eta idatziz.

33.2.3. Departamentuen programazio didaktikoak lantzeko eta aztertzeke irizpide orokorrak finkatzea.

33.2.4. Klaustroari curriculum-proiektuak proposatzea.

33.2.5. Etapako curriculum proiektuak betetzen direla zaintzea eta ebaluatzea.

33.2.6. Irakasleen klaustroari planak proposatzea curriculum eta programazioekin erlazionatuta.

IV. ATALA. TUTOREAK ETA IKASLE-TALDEEN IRAKASLEAK

(EBALUAKETA BATZORDEA)

34. artikulua. Tutoreen funtzioak

34.1. Tutoreen zereginak ondoko hauek dira:

34.1.1. Ebaluaketa Batzordea koordinatu, antolatu eta zuzendu.

34.1.2. Ebaluaketan eragina izan dezaketen ikasleen datuak bildu.

34.1.3. Familiekiko harremanak bideratu eta behar duten informazioa eman. 34.1.4. Ikasleei ikastetxeko funtzionamendua jakinarazi eta ikasleen kezkak, kexak edota erreklamazioak bideratu.

34.1.5. Ikasturtea antolatzeari buruzko ebazpenean esleitu zaizkien funtzioak eta atazak.

35. artikulua. Ebaluaketa Batzordea

35.1. Taldearen irakasleek osatzen dute eta Tutoreak koordinatzen du.

35.2. Bere funtzioak ondoko hauek dira:

35.2.1. Kurtsoan zehar, banaka eta orotara, taldearen bilakaera aztertu.

35.2.2. Ikasleen ebaluazio eta segimendu orokorra egin. Horretarako, ikasleen ikaskuntza hobetzeko beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte.

35.2.3. Ebaluaketa akta bete.

35.2.4. Taldeko bizikidetza-giroa hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak ezartzea.

35.2.5. Taldearen baitan sortzen diren gatazkak modu koordinatuan lantzea eta gatazka horiek ebazteko neurririk egokienak ezartzea.

35.2.6. Taldeko ikasleen gurasoei edo tutoreei emango zaien informazioa ezagutzea eta hura osatzen laguntzea.

II TITULUA. FUNTZIONAMENDU ETA BIZIKIDETZAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

36. artikulua. Bizikidetzaren oinarriak

36.1. BEURKO BHIren ustez, bizikidetza bermatzeko, batetik, hezkuntza komunitate osoak ikasleen eskubideak errespetatu eta babestu behar ditu ezinbestean eta, bestetik, ikasleek beren eskubideak eta eginkizunak arduraz bete behar dituzte, II titulu honetan ezartzen denarekin bat etorritik.

36.2. BEURKO Institutuak Bizikidetza Plana onartu eta idatziz jarri du. Plan horren helburu nagusia gerta daitezkeen gatazkak prebenitzea izango da, bizikidetzaren bilakaera libre, demokratiko eta solidarioa eraikinez, elkarrenganako errespetu, askatasun eta guztion erantzukizunean, elkarriketan eta kontsensuan oinarrituta.

36.3. Gatazkarik gertatuz gero, Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ezarri ziren neurriak aplikatuko dira, betiere neurri alternatiboak bilatuz eta, beharrezkoa da, bitartekotza-prozedurak erabiliz.

II KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

I ATALA. IKASLEEN ESKUBIDEAK

37. artikulua. Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute. Heziketa honek, honako baldintza hauek beteko ditu:

- a) Oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak emango ditu
- b) Nortasunaren garapen integrala eta harmonikoa bultzatuko du esparru hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, autoestimua, besteeikiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna.
- c) Ikasleek, Euskal Herriko kide diren aldetik, beren historia eta kultura ezagutuz, beren kultura-nortasuna aurkituko dute.
- d) Ikasle guztiak, baldintza berdinetan, derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai izango dira.
- e) Osasunaren babesa eta gaitasun fisikoen garapena ziurtatuko ditu.
- f) Eskubide eta askatasunen errespetua, bizikidetzarako demokrazia-printzipioak, tolerantzia, elkartasuna eta emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatuko ditu (otsailaren 18ko 4/2005 Legea).

38. artikulua. Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.

38.1. Ikastetxea eta bertako irakasleak behartuta daude tratu txarrak edo haurren babesik ezako edo arriskuko egoeren berri ematera adingabeen babesari buruzko eskumena duten Administrazio Publikoei edo, beharrezkoa denean, Fiskaltzari edo Agintaritza Judizialari, beharrezkoak diren datuak eta laguntza emanaz, egoera horiek saihestu eta konpontzeko.

38.2. Derrigorrezko eskolatze-adineko ikasleren bat eskolatu gabe dagoela edo ikasleren batek absentismo-maila handia duela antzematen bada, Hezkuntza-agintariei eta tokiko erakundeei jakinarazi beharko zaie, guztien arteko lankidetzan lortzeko absentismoa desager dadin.

38.3. Emakumeen eta haurren aurkako indarkeria-zantzurik atzeman badute, irakasleak behartuta egongo dira ikastetxeko gobernu-organoei jakinaraztera.

38.4. Hala ere, adingabearen lehentasunezko interesak eta pribatutasuna beti kontuan hartu beharko dira.

39. artikulua. Ikasle adingabeek ikastetxeak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.

39.1. BEURKO Institutuak familiekiko komunikazioetan ikasleen intimitatea zainduko du.

39.2. Ikastetxeko aginte-organismoek eta irakasleek ikasleei eta haien familiei buruz eskuratzen dituzten datu pribatu guztiak behar den diskrezioz erabiliko dituzte.

39.3. BEURKO Institutuko aginte-organismoek eragotziko dute ikasleei buruzko informazioa hedatzea edo haien irudia edo izena erabiltzea komunikabideetan, ikasleen intimitateari, duintasunari, ohoreari, ospeari edo legezko interesei kalterik egin ez diezaieten. Ikastetxeak informazio guztia barruan gordetzeko obligazioa du.

39.4. Ikasleen material grafikoa, argazkiak, bideoak, e.a. ez dira argitaratuko gurasoen baimenik gabe.

40. artikulua. Ikasleek beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea dute

40.1. Ikasleek ebaluaziorako zein erizpide egongo diren eta ikasturte bakoitzean gainditu beharreko gutxieneko helburuak ezagutzeko eskubidea dute. Era berean, gainditu gabeko ikasgaiak dituztenek zalantzak edo behar dituzten azalpenak dagozkien Mintegi Buruei eskatzeko eskubidea dute.

40.2. Ebaluaziorako erizpideak eta gutxieneko eskakizunak ikastetxeko Curriculumaren Proiektuaren barne egongo dira, ikasturte hasieran ezagutaraziko dira eta indarrean dauden ikasketa planekin bat etorriko dira. Ikasleek irakasgai bakoitzean helburuak, edukiak eta landuko diren gaitasunak ezagutzeko eskubidea dute.

40.3. Ikasturte amaierako nahiz ikasturte bitarteko ebaluazio-saioen ondotik, ikasleei, haien gurasoei edo legezko ordezkariari informazioa emango zaie.

40.4. Hala eskatuz gero, ikasleek azken kalifikazioen gain eragina izango duten lanak, ariketak eta probak zuzendu ondotik berrikusteko aukera dute.

40.5. Ikasleek ebaluaketa partzial edo azken kalifikazioari buruzko argibideak beren irakasleei eskatzeko eskubidea dute. Kalifikazioekin konforme ez badaude, erreklamatzeko eskubidea edukiko dute, indarrean dagoen prozedura-araudiaren arabera.

41. artikulua. Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute

41.1. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, sexua edo beste zirkunstantziak baztertuz.

41.2. Eskubide honek honako hauek hartzen ditu barnean:

41.2.1. Ikasleei, hezkuntza-orientaziorako zerbitzua ematea, beren interesen eta gaitasunen arabera aukera egokiak egin ditzaten, batez ere maila edo ziklo bakoitzaren amaieran.

41.2.2. Eskaintzen zaizkien aukerei buruzko aholkuak ematea ikasleei, enpleguaren egoerari eta aurreikuspenei buruzko informazioa kontuan hartuta.

42. artikulua. Ikasleek beren osotasun fisiko, psikiko eta morala, beren nortasun eta duintasun pertsonala errespetatuak izateko eskubidea dute eta inola ere ezingo zaie tratu laidogarri edo degradatzailerik eman ez eta tratu txar fisiko edo morala duten zigorrik eman ere. Edozein eraso fisiko edo moralaren kontrako babesa jasotzeko eskubidea dute.

42.1. Ikasleen jardura akademikoa segurtasun- eta higiene-baldintza egokietan egin beharko da. Segurtasuna bermatzeko, ikastetxearen kanpoko gunetan kamerak daude.

42.2. Ikasleak beti egongo dira irakasle edo monitoreen kontrolpean. Eskola-ordu guztietan eta patio-orduetan zaintza-irakasleekin egongo dira.

42.3. BEURKO Institutuko zuzendaritzak, irakasleek eta gainerako langileek berdinen arteko tratu txarrak ezabatzen lagunduko dute, ezarritako prozedurei jarraiki eta Zuzendariari haren berri emanez.

42.4. Eskola-eremuan debekatuta dago ere tabakoa, alkohola edo bestelako drogak edukitzea eta kontsumitzea.

43. artikulua. Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatzea.

43.1. Eskubide hau bermatzeko ondoko neurri hauek hartuko dira:

43.1.1. Ikasleek matrikulatu aurretik, ikastetxearen hezkuntza proiektuari buruzko informazioa izango dute.

43.1.2. Institutuak emango duen irakaskuntzak inolako manipulazio ideologikorik ez izatea bermatuko du.

43.1.3. Institutuak ikasleek erlijioaren eta moralaren arloan beren sinesmenekin bat datorren irakaskuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatuko du eta aukera horrek ez du diskriminaziorik eragingo.

44. artikulua. Ikasleek ikastetxean biltzeko eskubidea dute, hau da, bildu ahal izango dira eskolako nahiz eskolako kanpoko jarduerak gauzatzeko, baita hezkuntza edo trebakuntza helburu duten jarduerak gauzatzeko.

44.1. Ikasleak taldearen mailan, Ordezkarien Batzordean eta Ikasleen Asanbladan bildu ahalko dira. Zuzendaritza-taldeak bilera hauetarako arauak betetzen direla bermatuko du, baita adingabeko ikasleen babesa ere.

45. artikulua. Ikasleek adierazpen-askatasunerako eskubidea dute, beren iritziak askatasunez, bakarka eta taldean, adierazi ahal izateko.

45.1. BEURKO Institutuak arauak onartuko ditu ikasleen adierazpen askatasuna bermatzeko, baldintzak, denborak, espazioak eta lekuak arautuz. Hezkuntza komunitate osoak errespetatu beharko ditu eskubide hau bermatzeko arauak.

46. artikulua. Ikasleek elkartzeko eta elkarteak, federazioak nahiz konfederazioak osatzeko eskubidea dute, indarrean dauden legeetan xedatutakoarekin bat.

46.1. Ikasleek biltzeko lokal bat edukiko dute, betiere azpiegiturak ezarritako mugak kontuan izanik eta jarduera akademikoa eten gabe.

46.2. Ikastetxeko elkarte edo talde bakoitzak solaskide edo erantzule bat izendatuko du.

47. artikulua. Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden araei jarraiki

47.1. Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartuko dute taldeetako ordezkarien eta Eskola Kontseiluko ordezkarien bidez.

48. artikulua. Ikasleek, adinaren eta heldutasun-baldintzen arabera, beren garapenerako informazio egokia bilatzeko, jasotzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.

48.1. Institutuko Zuzendaritza-taldeak eta beste aginte-organismoek haien eskubideak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango diete ikasleei.

48.2. Ikasleek eskubidea dute informazioa jasotzeko beren partaidetzarako taldeko organo kideen edo Eskola Kontseiluko ordezkarien eskutik, bai ikastetxeko gaien inguruan, bai, Hezkuntza Sistemari dagozkion gaien inguruan.

49. artikulua. Ikasleek hainbat arlotako gabeziak eta desabantailak (pertsonalak, familia-arlokoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak) konpentsatzeko behar dituzten laguntzak jasotzeko eskubidea dute, batez ere hezkuntza-premia bereziak badituzte.

49.1. Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleek arreta jasoko dute Institutuan beren beharren arabera.

49.2. Institutuak beste zerbitzu publikoekin eta udaletako, lurraldeetako nahiz Autonomia Erkidegoko beste zerbitzuekin harremanak izango dituzte arlo soziokulturalean eta arlo ekonomikoan bereziki behartsuak diren ikasleen premiei erantzuteko.

50. artikulua. Ikasleek hezkuntza-arloan gizarte-babesa jasotzeko eskubidea dute, familia-ezbeharren edo istripuen kasuetan.

50.1. Derrigorrezko mailetan diharduten ikasleek beren eskola-errendimendua ziurtatzeko behar den laguntza jasotzeko eskubidea dute. Institutuak elkarteei beharrezko laguntza ekonomiko eta akademikoa eskatuko die (Urrutiko Hezkuntza Arreta, Ospitalean, etxean...) ezbeharra, gaixotasun luzea edo istripua jasaten duten ikasleentzat.

50.2. Institutuak babes-neurriak hartuko ditu berdinen tratu txarren kasuetan eta bereziki jazarpen sexistan eta emakumeen aurkako erasoen kasuetan. Beharrezkotzat jotzen bada, jazarleak edo, hala eskatuz gero, biktimak, ikastetxetik aldatzea berehala proposatu dezake, betiere biktimei laguntza psikologikoa eskainiz.

51. artikulua. Ikasleek ingurumen-baldintza egokietan eta kalitateko ikastetxe jasangarri batean ikasteko eskubidea dute. Hezkuntza-komunitateko kide guztiek konpromisoa daukate Ikastetxearen garapen jasangarriarekin.

51.1. Ikasleek ingurumenarekiko errespetuan oinarrituriko hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, ingurune garbi, osasuntsu eta jasangarri batean. Ikastetxetik kanpo edo barneko baldintzak ikasketarako estimulatzaileak izan behar dira.

51.2. Ikasleek Ikastetxeko ingurumen kudeaketaz informazioa eta argibideak jasotzeko eta Eskola jasangarriaren alde gauzatuko diren jarduerak eta ekintzak ezagutzeko eskubidea dute. Aginte organoek eta Agenda 21ko koordinazio organuek eskubide hau bermatuko dute.

51.3. Ikasleek eta Hezkuntza-komunitateko beste kideek ingurumen kudeaketaz parte hartzeko eta ikastetxeko garapen jasangarriaren aldeko laguntza emateko eskubidea dute, Agenda 21ko koordinazio eta parte hartzearen organoen bidez.

51.4. Ikasleek ingurumen faktore eta arazoei buruzko etengabeko Formakuntza jasoko dute eta Formakuntza saioen diseinuan laguntza emateko eskubidea dute, Agenda 21k koordinaturiko ekintzen bidez. Halaber, irakasgai guztiak saiaturiko dira sartzen ingurumenari buruzko gaiak curriculumetan.

51.5. Ikasleek beste entitateek sustaturiko ingurumenari buruzko kanpainak edo programak ezagutzeko edota parte hartzeko eskubidea dute.

52. artikulua. Ikasleek euskara ardatz izango duen hezkuntza sisteman ikasteko eskubidea dute.

52.1. Hezkuntza jarduera guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea (azalpenak, egoera komunikatibo guztiak, baliabide orokorrak analogikoak zein digitalak, ikus-entzuneko baliabideak, informatika baliabideak, aisialdiko jarduerak...).

52.2 Ikasleek ikastetxean euskararen erabilera sustatzeko egiten diren ekimen guztien berri izango dute, eta informazioa hori helaraztearen ardura HNB-arena izango da.

52.3 Ikasleek ikastetxetik kanpo erakunde publikoek zein pribatuek antolatutako ekimenen berri izango dute, eta informazio hori helaraztearen ardura HNB-arena izango da.

II ATALA. IKASLEEN BETEBEHARRAK

53.artikulua. Ikasteko betebeharra

53.1. Ikastea eta gaitasun guztiak garatzeko ahalegina egitea ikasleen oinarritzko betebeharra da. Duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzeko, behar adinako lana egingo dute ikasleek.

53.2. Era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen lagundu behar dute, eta beren portaerarekin ez dute eragozpenik sortuko gelan.

53.3. Ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera, bakarrik irakasleek onarturiko liburu eta materialez baliatuz.

54.artikulua. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra

54.1. Ikasle guztiek parte hartu behar dute prestakuntza-jardueretan, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

55.artikulua. Bertaratzeko betebeharra

55.1. Ikasleek egunero etorri behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko ez etortzerik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

56.artikulua. Bizikidetza errazteko betebeharra

56.1. Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute Institutuan eskola-bizikidetza hobetzeko eta giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz.

56.2. Horretarako, ikasleek AJAn bildutako Bizikidetza Arauak ezagutu behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute beti, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere tolerantziaz eta elkartasunez jokatzuz.

56.3. Ikasleek bizikidetzarako aurkako eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzeko laguntza eman behar dute, zuzendariak edo irakasle instruktoreak eskatzen dienean lekuko gisa deklaratu.

57.artikulua. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra

57.1. Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arloko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitatea errespetatu behar dituzte, inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, kultura, erlijioa, sinesmenagatik... edo beste edozein zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozialagatik.

57.2. Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko adierazpenik egingo.

57.3. Ikasleek, eskola eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programaturiko jardueretan. Ez dute hezkuntza-komunitateko inor grabatuko baimenik gabe.

58.artikulua. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra

58.1. Ikasleek Institutuko Arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte. Era berean, irakasleen jarraibideak bete behar dituzte.

58.2. Institutuak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean agindutako ekintzak bete beharko dituzte ikasleek.

59.artikulua. Instalazioak errespetatzeko betebeharra

59.1. Ikasleek Institutuko instalazioak, altzariak, kutxatilategiak(takilak), ekipamendua eta material didaktikoak zaintzeko eta ondo erabiltzeko betebeharra dute. Ez dute inola ere Institutuko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

59.2. Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori Institutuan sartzeko aukera erraztuko, ezta lagundu ere.

59.3. Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak eta takilak errespetatu behar dituzte eta ikastetxearen testu liburuak nahiz gainerako material didaktikoak baldintza egokietan mantendu behar dituzte.

60.artikulua. Ingurumen osasuntsu eta eskola jasangarriaren aldeko konpromisoa hartzeko betebeharra.

60.1. Ikasleek ingurumena zaindu eta errespetatu behar dute. Ingurumena zaindu eta hobetzearen aldeko jarrera arduratsua erakutsiko dute Formakuntza jardueretan parte hartzeko aukera izanez eta aginte organoek eta **Agenda 30** koordinazio organoek emandako argibideak eta aginduak betez.

61. artikulua. Institutuko espazio guztietan euskara erabiltzeko betebeharra.

61.1. Beurko BHIko ikasleek euskaraz hitz egiten dien edonori euskaraz erantzungo diote.

61.2. Ikasleek ikastetxeak euskara sustatzeko antolatzen dituen eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu behar dute.

III KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
BERMATZEKO ARAUAK

I. ATALA. IKASLEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO ARAUAK

62.artikulua. Printzipio orokorrak

62.1. BEURKO BHI institutuko ikasleek bermatuta izango dituzte aurreko Kapituluari aipaturiko eskubideak. Irakasle guztiak behartuta daude laguntza ematera eskubideen babes-funtzioetan. Horretarako, Araudi honek eta Ikastetxeko aginte organoek emandako argibideei jarraituko diete.

63.artikulua. Ikasleen segurtasunarekin erlazionaturiko eskubideak betetzea

63.1. **Tutoreek** nahiz gainerako irakasleek antzematen badute ikasleren bat **familia- mailan tratu txarrak** jasotzen ari dela, edo arriskuan edo babesik gabe dagoela, Ikasketa burua edo Zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

63.2. Irakasleek **kide berdinen arteko tratu txarrak** prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratu txarren arrastorik antzeman ez gero, Zuzendaritza-taldea jakinaren gainean jarriko dute berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezkeen.

63.3. Adingabeko ikasleek irakasleen kontrolpean egon behar dute beti. Ikasketa buruak behar adineko zaintza-irakasleak izendatuko ditu bai eskola-orduetan bai atsedenaldietan ikasle guztiak kontrolatzeko.

- **Irakaslea falta denean** ikasleak ikasgelan geratuko dira, irten gabe, zaintza irakaslearen zain. Gero, ordu osoan egongo dira ikasgelan, zaintza-irakaslearen kontrolpean, irakasleak utzitako lanak egiten.
- **DBHn** ez dago eskola saioen artean pasilloetan gelditzerik.
- **DBHn** ikasleak gelan geratuko dira, beti ere zaintza irakaslearen ardurapean, huts egindako irakasleak utzitako lanak egiten”.
- **Batxilergoan** ikasleak liburutegira edo patiora joan litezke ala, okupaturik ez izatekotan eta DBH-ko gela guztiak dagozkien irakaslearekin egotekotan, gelan bertan geratu. Nolanahi ere, zaintza irakasleak erabakiko du zer egin. Gela hutsik geratzekotan zaintza irakasleak berak itxiko du”.
- **Batxilergoan** lehenengo eta azken orduetan irakaslea falta denean, ikasleak etxean geratu edo lehenago atera daitezke Institututik.
- **Batxilergoan baino ez** eskola-orduak aurreratu ahal izango dira lehenago amaitzeko, Ikasketa-buruari baimena eskatu ondoren.
- Patio orduan ikasleak irtengo dira: ezin izango dira ikasgeletan geratu ezta pasilloetan ere. Irakasleak gela giltzaz itxiko du.
- Nahi izanez gero, ikasleek liburutegira joateko aukera izango dute, bakarrik ikasteko edo irakurtzeko. Isilik egongo dira, irten gabe, txirrinak jo arte.
- Liburutegira ezin da janaririk ezta edaririk eraman.
- **DBHko 2. zikloko** ikasleek gurasoen baimena ekarri beharko dute errekreioan Institututik ateratzeko. 1. ziklokoak ezin izango dira atera Institututik.
- DBHko ikasleek eskola saioetan joango dira komunera. Bigarren zikloko ikasleak atsedenaldietara ateratzean eta atsedenaldietatik itzultzean ere joan ahal izango dira. Batxilergoko ikasleak atsedenaldiaren hasieran edo amaieran eta eskola orduen arteko tarteetan joango dira.

64.artikulua. Ondra, intimitatea eta irudi propioaren eskubideen babesa

64.1. Zuzendaritza-taldea, tutoreak eta BEURKO Institutuko irakasle guztiak behartuta daude ikasleek eta hezkuntza Komunitateko gainerako kideek dituzten ondra, intimitate eta irudi propioaren eskubideak babestera.

64.2. Telefono mugikorrak erabiltzea eta piztuta edukitzea debekatuta dago ikastetxe osoan. Araua ez errespetatzea **jokabide desagokitzat** hartuko da eta tresna elektronikoa konfiskatzea ekarriko du neurri zuzentzaile gisa. Ikasleak dispositiboa berreskuratu ahalko du Zuzendaritzan eskola saioen amaieran. Bigarrenenez erabilera desagoki erabiliz gero, bigarren jokabide desagokitzat hartuko da, eta aurrekoan bezala, tresna konfiskatzea ekarriko du, eta Zuzendaritzan hartu ahalko da eskola saioen amaieran. Hirugarren aldiz jokabidea errepikatuz gero, **larritzat** hartuko da, hau da. **bizikidetzaren kontrako jokabidetzat**. Dagokion prozedurari hasiera emango zaio eta gurasoek/legezko ordezkariak etorri beharko dute tresna hartzera.

Erloju adimendunak desagoki erabiltzea jokabide desagokitzat hartuko da. Bigarrenenez gertatzen bada, berriro jokabide desagokitzat hartuko da, eta erlojua ikastetxera astebetez ekartzea debekatuko da.

Hirugarren aldiz jokabidea errepikatuz gero, larritzat hartuko da, hau da, bizikidetzaren kontrako jokabidetzat. Dagokion prozedurari hasiera emango zaio eta gurasoek/legezko ordezkariak etorri beharko dute erlojua hartzera.

DBHko 2. Zikloan eta Batxilergoan mugikorraren erabilera bakarrik onartuko da tresna pedagogiko moduan irakaslearen baimenaz eta arduraz.

Halaber, ezin izango da ordenagailu eramangarria patioetan erabili eta liburutegian bai bakarrik lan egiteko bada.

64.3. Ikasgelan debekatuta dago argazkiak edo grabazioak egitea. Orokorrean eskola esparruan ikasleek ezin izango dute erabili grabazio-tresneriarik, Ikastetxeak programaturiko ekintzetarakoak kenduta. Hala ere, Ikastetxeak baimendu arren, debekaturik egongo da Hezkuntza-komunitate kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. **Araua ez betetzea bizikidetzaren kontrako edo bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da.**

64.4. Ikasturte hasieran Zuzendaritzak guraso eta legezko ordezkariari sinaturiko baimena eskatuko die, irteeretan edo eskola-ekintzetan seme-alaben irudiak hartu edo argitaratu ahal izateko.

65.artikulua. Biltzeko eskubidearen babesa

65.1. Talde bakoitzeko ikasleek ikasgelan biltzeko eskubidea izango dute, eskolarik galdu gabe, ikasketei buruzko gaiak lantzeko eta eztabaidatzeko, aldez aurretik tutoreari jakinaraziz. Tutoreak bileran egon beharko du. Hiru hilabeteetan behin eskola- orduetan bildu ahalko dira, aldez aurretik tutoreari baimena eskatuz eta gai-zerrenda erakutsiz. Bilera hauek ordubeteko iraupena izango dute gehienez eta, tutorea ez badago, bilera horien buru eta moderatzaile taldeko ordezkaria izango da, betiere Ikasketaburuak baimena eman ondoren.

65.2. Ordezkarien Batzordearen bilerak egiteko Ikasketaburuari baimena eskatu beharko zaio. Honek gai-ordena irakurriko du eta baimena eman edo ukatu egingo du, gaiek Ordezkarien Batzordearen eskumenekin duten egokitzapen-mailaren arabera. Horrez gain, aurreko bileretan gai-zerrenda errespetatu ez bada, baimena ukatu dezake. Ikasketaburuaren erabakiaren aurka erreklamazioa aurkez daiteke Zuzendariaren aurrean. Bilera guztiak eskola-ordutegitik kanpo egingo dira.

65.3. Ikasleen Asanbladarako deialdia taldeko Ordezkariek onartu beharko dute **gehiengo sinplez**, ondoko hauek eskatuz gero:

- a) Eskola Kontseiluko ikasleen ordezkariak
- b) Institutuko edozein taldek.

65.4. Deialdia ikasle guztiei helaraziko zaie taldeko ordezkarien bitartez, baina bileretara joatea ez da derrigorrezkoa izango.

65.5. Ikasleen Asanbladak eskola-orduetatik kanpo egingo dira (atsedenaldiak...). Egoera berezietan, gaien garrantziak honela eskatzen badu, eskola-ordutegian **murritzketak** egin ahalko dira. Kasu hauetan **48** ordu lehenago, arrazoizko eskaera aurkeztu beharko zaio Zuzendaritza-taldeari. Beharrezkoa balitz, Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bilera eskatuko da, baloratzeko eta erabateko erabakia hartzeko.

65.6. Biltzeko eskubideak **DBHko 3. mailatik gorako ikasleen ez-etortzearen proposamena ekarri** gero, ondoko baldintza eta pausu hauek bete beharko dira:

65.6.1. Greba proposamena Ikasketaburuaren aurrean aurkeztuko da idatziz eta sinatuta, gutxienez bi eskola-egun lehenago. Idazkian nork deitzen duen, data, ordua eta programaturiko ekintzak adierazi behar dira.

65.6.2. Proposamenak ezarritako epe aurrekotasuna errespetatzekotan eta bere zergatiek ez badute Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29.artikuluak eta EAE ko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak edo AJAk babesten dituen elkarbizitza ereduaren aurkako ekimenik babesten, aurrera jarraitu ahal izango du.

65.6.3. Grebarako proposamena Delegatuen Batzordean eztabaidatuko da eta Delegatuen %50aren onarpena beharko du.

65.6.4. Proposamena ikasgeletan irakurri eta azalduko da eta isilpean bozkatzeko da irakaslearen aurrean. Bozketa baliokoa izateko ikasle-kopuruaren **erdia gehi bat** beharrezkoa da. Greba-proposamena **erabateko gehiengo**z onartuko da eta aldeko emaitza ez da inoiz loteslea izango.

65.6.5. Bozketaren emaitzak akten bidez bildu eta Ikasketa-Burutzara eramango dira. Aktetan agertuko dira:

- bilera eta bozketa non egin den
- zein ordutan hasi den bileran egon diren ikasleen kopurua, baieztakotoak, ezeztakotoak eta abstentzioak
- irakaslearen sinadura

65.6.6. Aldez aurretik programaturiko azterketak eta eskolaz kanpoko irteerak errespetatuko dira.

65.6.7. Zuzendaritza-taldeak gurasoei informazioa bidaliko die idazki ofizial baten bidez, berauek sinatuta bueltatzeko dutena, greba egiteko gurasoen baimena ezinbestekoa izango delako.

65.6.8. Ikasleriaren Eskubide eta Betebeharren Dekretuaren arabera, prozedura ondo eginda badago, greba eskubidea da eta ez du ezetortze-faltarik ekarriko, baina irakasleek ez dute klasea berriro eman behar.

66.artikulua. Adierazpen askatasunaren eskubidea betetzea

66.1. Idatzizko adierazpen askatasunaz baliatu ahal izateko, ikasleek baldintza hauek errespetatuko dituzte:

- a) Kartelak edo beste edozein idazki, horretarako dauden kortxoetan bakarrik ipiniko dira, beti **sinatuta**.
- b) Kartelak eta gainontzeko idazkiak egunerokotasuna galtzean, jarri dituzten ikasleek edo taldeek kenduko dituzte.
- c) Ikasgelen barruan **eskolako jardueri buruzko informazioa** baino ezin da jarri.
- d) Arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kenduko dira.

67.artikulua. Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboaren eskubidea betetzea

67.1. Irakasle guztiek irakasgai bakoitzaren helburuak, gutxieneko edukiak eta ebaluazio-irizpideak ezagutzera eman behar dituzte ikasturtearen hasieran. Informazio hori irakasgaiaren Programazio Didaktikoan adierazita egongo da.

67.2. Halaber, ikasleek, eta adingabeko ikasleen guraso edo legezko tutoreek, errendimenduaren ebaluazioan eragiten duten ebidentzia dokumentalak berrikusi ahal izango dituzte, bai eta azken ebaluazioan eragingo duten probak eta ariketak ere, behin zuzenduta daudenean; horien kopia jasotzeko eskubidea izango dute, hala eskatzen badute. Zuzentzea ezin da izan kalifikazio kualitatibo edo kuantitatiboa jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak hobetu behar dituen alderdiak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

67.3. Berrikuspena ikasturteko edozein unetan eskatu ahal izango da baina ezin izango da horri buruzko erreklamaziorik aurkeztu. Akta ofizialetan agertzen diren azken kalifikazioak eta mailaz igarotzeko edo titulua lortzeko erabakiak soilik erreklamatu daitezke. Berrikuspena ebaluazioa bera egin duen irakasleak edo bere ordezkariak egingo du.

67.4. Berrikuspena egiteko honako prozedura hau jarraituko da:

1. Berrikuspena eskatu baino lehenago ikasleek, eta adingabeko ikasleen kasuan guraso edo legezko tutoreek, irakasleari hitzordua eskatuko diote.

2. Aurrekoa egin ondoren, ikasleek, eta adingabeko ikasleen kasuan guraso edo legezko tutoreek, irakasleari berrikuspen eskaeraren [inprimaki ofiziala](#) eskatuko diote. Kasu guztietan, ikasleek, eta adingabeko ikasleen kasuan guraso edo legezko tutoreek, hura sinatu beharko dute eta eskaeran bertan berrikusi nahi dituzten dokumentuak zeintzuk diren adieraziko dute. Ondoren, irakasleari emango diote.

3. Irakasleak ikasketaburuari eskaeraren kopia emango dio zuzendaritzan erregistratuta gera dadin.

4. Behin berrikuspena eginda, irakasleak bileraren akta jasoko du [inprimaki ofiziala](#) erabiliz, eta, hala badagokio, emandako ebidentzia dokumentalen kopiak zeintzuk diren zehaztuko du. Kasu guztietan, ikasleek, eta adingabeko ikasleen kasuan guraso edo legezko tutoreek, akta sinatuko dute, entregatutako ebidentzia dokumentalaren kopiak era pribatuan erabiltzeko konpromisoa hartuko dutelarik, hala dagokionean.

5. Irakasleak ikasketaburuari berrikuspenaren akta emango dio, zuzendaritzan erregistratuta gera dadin.

67.5. Ikasturteko edozein unetan probak, lanak eta ariketak aztertu ahal izateko, irakasleek ikastetxean izango dituzte agiri guztiak, eskola-garai osoan eta, gutxienez, ikasturteko azken deialdiko kalifikazioak jaso ondoren, **erreklamazioak egiteko dagoen epea amaitu, eta hurrengo hiru hilabeteetan.** Epea amaituta, agiriak suntsituko dira edo ikasleei eman. Administrazio edo Epaile aurreko erreklamazioa jarritz gero, prozesu osoa amaitu arte gorde beharko dira, bai ikaslearen agiriak bai taldeko gainontzeko ikasleenak, konparaketak egin ahal izateko.

67.6. Ikasleen azken deialdiko proba(k) dagokion Departamentuan utzi eta **urtebetez** gordeko dira.

67.7. Azken kalifikazioaren kontra barne- eta kanpo-erreklamazioa aurkeztu ahal izango du ikasleak, eta adingabeko ikaslearen guraso edo legezko tutoreak. Horretarako honako prozedura hau jarraituko da:

1. Interesatuak [erreklamazio-inprimakia](#) aurkeztuko dio zuzendariari, kalifikazioak argitaratu eta bi eguneko epearen barruan.

2. Zuzendariak Mintegiburuari erreklamazioaren berri emango dio eta hark mintegi bilera deituko du, erreklamazioa ebazteko proposamen bat egiteko.

3. Mintegiburuak bilera horren akta jasoko du [inprimaki ofizialaren](#) bidez. Bertan, kalifikazioa berretsi edo aldatzea proposatuko du, proposamen hori behar bezala arrazoituz. Akta horren kopia zuzendariari emango dio.
4. Mintegiaren proposamena irakurri ondoren, zuzendariak erreklamazioaren ebazpena egingo du [inprimaki ofiziala](#) jarraituz, eta interesatuari luzatuko dio, gehienez jota erreklamazio epea bukatu eta hiru egunera.
5. Zuzendariaren ebazpenarekin ados egon ezean, interesatuak kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango du, ebazpena jaso eta bi eguneko epean. [Inprimakia](#) zuzendariari eskatuko dio eta azken horrek Ikuskariari helaraziko dio, beste bi eguneko epean.

67.8. Promozio- edo titulazio-erabakiaren kontra barne- eta kanpo-erreklamazioa aurkeztu ahal izango du ikasleak, eta adingabeko ikaslearen guraso edo legezko tutoreek. Horretarako honako prozedura hau jarraituko da:

1. Interesatuak [erreklamazio-inprimakia](#) aurkeztuko dio zuzendariari, promozio- edo titulazio-erabakia argitaratu eta bi eguneko epearen barruan.
2. Zuzendariak ikaslearen tutoreari erreklamazioaren berri emango dio eta hark irakasle-taldearen bilera deituko du, erreklamazioa ebazteko proposamen bat egiteko.
3. Tutoreak bilera horren akta jasoko du [inprimaki ofizialaren](#) bidez. Bertan, erabakia berretsi edo aldatzea proposatuko du, proposamen hori behar bezala arrazoituz. Akta horren kopia zuzendariari emango dio.
4. Irakasle-taldearen proposamena irakurri ondoren, zuzendariak erreklamazioaren ebazpena egingo du [inprimaki ofiziala](#) jarraituz, eta interesatuari luzatuko dio, gehienez jota erreklamazio epea bukatu eta hiru egunera.
5. Zuzendariaren ebazpenarekin ados egon ezean, interesatuak kanpo-erreklamazioa jarri ahal izango du, ebazpena jaso eta bi eguneko epean. [Inprimakia](#) zuzendariari eskatuko dio eta azken honek Ikuskariari helaraziko dio, beste bi eguneko epean.

68.Artikulua: Irakasleenganako ezadostasun larriak

Irakasleekin ezadostasun larriak izatekotan, konpontzeko oinarritzko urratsa zera da: berarekin zuzen-zuzenean arazoa lantzea, eskatuz berarekin hitz egiteko (irakasleak esango du noiz: eskola saioetan zehar edo beste uneren

batean –atsedenaldian, klase egunaren bukaeran..-). Arazoak jarraitzekotan eta ikasle-irakasle arteko adostasunik ez balego bitartekariarena egiteko lehenengo pertsona tutorea da. Honen eskuhartzearen ondoren arazoak jarraitzekotan zuzendaritzara jo, ikasketa burutzara; hau da bitartekari lana egiteko azken maila ikastetxe barruan.

69.artikulua. Ingurumen osasuntsuan ikasteko eskubidearen babesa

69.1. Ikasleek eta Hezkuntza-komunitateko kide guztiek oinarritzko arau hauek beteko dituzte:

- Komunikazioetan paperaren gehienezko aurrezpenaren printzipioari ekingo diogu honako neurri hauek besteak beste betez:
 - orriak beste aldetik berrerabiliz
 - orri berean ohar bat baino gehiago inprimatuz
 - arbela eta bide digitalak ahalik eta gehien erabiliz
- Gela guztietan papera birziklatzeko kutxak erabiliko dira. Ikasleek asteen behin kutxa horiek hustuko dituzte.
- Gela guztietan papera berrerabiltzeko kutxak eskura izango dituzte.
- Ikasleek eta irakasleek klaseak amaitzean edo gelak uztean argiak itzalita geratzen direla kontrolatuko dituzte. Informatika-geletan azken orduan irakasleek ordenagailuak eta kanoiak itzaliko dituzte.
- Irakasleen gelan azken orduan zaintza-irakasleek ordenagailuak itzalita geratzen direla egiaztatuko dute. Mintegiak ere haien ordenagailuak eta argiak amatatzeaz arduratuko dira.
- Ikasleek eta Ikastetxeko kide guztiek uraren kontsumo arduratsua bermatuko dute eta kanilak erabili ondoren itxita geratzen direla kontrolatuko dute.
- Ikastetxeko kide guztiek uraren gastua handitzen duten ihesak, matxurak, e.a. komunikatu beharko dituzte Zuzendaritza-taldeak eta Agenda 2030eko koordinazio organoek erabakitako baliabideen bidez.
- Zuzendaritzak eta Agenda 30eko organoek gai ezberdinak biltzeko kontenedoreak jarri eta mantenduko dituzte. Ikasleek eta Ikastetxeko kide guztiek hautatze kontenedoreak erabiliko dituzte papera, materia organikoa, plastikozko ontziak, pilak, disketeak eta CDak, tinta

kartutxoak, olioak eta abarrak sartu eta birziklatu ahal izateko.

- Berogailuak funtzionamenduan daudenean, ikasleek leihoak itxita mantenduko dituzte.
- Laborategietako irakasleek hondakinen tratamendu arduratsua sustatu eta egiaztatuko dute.
- Ikasleek eskola baratzaren egoera onaz arduratuko dira dagozkion irakasleen argibideei jarraituz.
- Zuzendaritza-taldea eta Agenda 21 koordinazio organoek neurriak erabaki eta hartuko dituzte berogailuen erabilera optimizatzeke.
- Jantokiko hondakinak ahal den neurrian birziklatuko dira.
- Ingurumen Batzordea izango da ingurumenari dagokion funtzionamendu ona gainbegiratuko duena.

70. artikulua. Ikastetxeko harreman hizkuntza euskara izatea/Ingurune euskaldunean bizi ahal izateko laguntza ematea

- Irakasleen eta ikasleen arteko komunikazio hizkuntza euskara izango da
- Irakasleen arteko hizkuntza euskara izango da, gutxienez, gure lanarekin zerikusia daukaten egoera guztietan (ebaluazio bileretan, klustroan, elkarri emandako informazioa...)
- Institutuko informazio guztia euskaraz helaraziko zaie hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztiei

II ATALA. IKASLEEN BETEBEHARRAK BERMATZEKO ARAU BEREZIAK

71.artikulua. Printzipio orokorra

71.1. Ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen dituen abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebehar ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebehar horiek ez egitea, gutxienez, **jokabide okertzat** hartuko da beti. Ikasleen jokabideak **bizikidetzaren kontrakoak** edo **bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak** izan daitezke, hezkuntza-komunitateko gainerako

kideei beren eskubideak betetzea galarazten badiete, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badituzte.

71.2. Irakasleren batek ikusten badu ikasle baten jokabidea desegokia dela edo, bere jokabideaz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen eskubideak urratu dituela, jokabideari dagokion neurri hezitzailea jarriko dio edo Ikasketaburua jakinaren gainean jarriko du.

72 artikulua. Etortzeko betebeharra bermatzeko prozedurak

- Ez etortzeak egunero kontrolatuko dira.
- Ez etortzeak gurasoek edo legezko ordezkariak justifikatu behar izango dituzte, 3 eguneko epean, tutoreak zigilaturiko eta entregatutako inprimakien bidez.
- Gaixotasun-kasuan edo aldez aurretik ikaslea ez dela etorriko jakinez gero, gurasoek edo legezko ordezkariak tutoreari jakinaraziko diote, emailaz edo telefonoz.
- **DBHko 2. Zikloan** 3 justifikatu gabeko ez etortze jokabide desegokia izango dira. Tutoreek dute honen erantzukizuna.
- **DBHko 1. Zikloan**, ikasleen adinagatik, justifikatu gabeko ez etortze oro jokabide desegokitza joko da.
- Ebaluaketa osoan eginiko hutsegiteak, justifikatuak zein ez justifikatuak, noten orrian agertuko dira.
- 16 urtetik beherako ikasleen kasuan, justifikatu gabeko ez etortzeak eskola-orduen %20 baino gehiago baldin badira, absentismo prozeduraren aplikazioa ekarriko dute, eta Udal-zerbitzuei eta Ikuskaritzari jakinaraziko zaie.
- Eskola-ordutegian Institututik sartzeko edo ateratzeko justifikantea beharrezkoa izango da. Ikasleak 1. zikloan irakasleari emango dio justifikantea, eta joan aurretik sarrerako zaintza-liburuan erregistratuko da.
- Ikasleak behartuta daude **puntualtasunez** jokatzera. Lehenengo orduan Institutuan sartzekoan eta laugarren orduan atsedenalitik bueltatzean, txirrinak jotzeak atea itxiko dela adieraziko du. **Hamar minutu** geroago, atea berriro irekiko da berandu heldu diren ikasleak sar daitezen. Zaintza-irakasleak ikasleak ikasgeletara bidaliko ditu eta beren izenak

berandutze-liburuan idatziko ditu. **Hirugarren berandutzero** heltzean gurasoei deituko die puntualtasun-falta jakinarazteko eta **laugarrenean jokabide desegokia** ipiniko die. Geletan dauden irakasleek puntualtasun-falta jarriko diete aplikatiboan eta gelako liburuxkan.

- Azterketetan txirrinak jo baino lehenago amaitu arren, ikasleak ezin izango dira gelatik atera.
- Berreskurapenetan **DBHn** taldeko **ikasle guztiak** ikasgelan egongo dira. **Batxilergoan** berreskurapena egin behar ez dutenek 1. eta azken orduetan etxean geratzeko edo lehenago joateko aukera edukiko dute. Gainontzeko orduetan, ikasle guztiak ikasgelan egongo dira.
- Ikasle bat azterketa batera etorri ezin denean:
 - Gurasoek telefonoz abisatuko dute.
 - Ikaslea ikastetxera etortzen denean, gurasoek sinaturiko justifikazio-agiri bana emango die inplikaturako irakasleari eta tutoreari.
 - Aurreko bi baldintzak beteta, eta ez etortzearen zergatia gaixotasuna edo gai larria izan bada, irakasleak azterketa beste egun batean egingo dio. Ikasleak egin ez duen azterketa partziala izan bada, Mintegiak erabakiko du.

73. artikulua. Instalazioak errespetatzeko betebeharra bermatzeko prozedura

- Kurtso hasieran tutorearekin gela eta altzarien egoera aztertuko da.
- Tutoreek geletan, eta laborategietako eta gela berezietako irakasleek akatsak eta hondamenak kontrolatuko dituzte. Intentzioz edo txarto erabiltzeagatik egindakoak, errudunek konpondu edo ordaindu beharko dituzte. Errudunak agertu ezean, talde osoak ordaindu beharko ditu.
- Ikasleak **geletan** ordenaz eta garbiketaz arduratuko dira egunero, mahaiak bere tokian edukiko dituzte, eta paperak jasoko dituzte. Gela bat oso zikin uzten bada, garbitzaileak ez dira arduratuko gelaz, ikasleek garbitu arte.
- Ikasleen taldeak gela uzten duenean, errekreora, bikoizketa-geletara, laborategietara... joateko, baita arratsaldeko klaseak amaitzean ere, irakasleak gela giltzaz itxiko du.

III ATALA. IKASLEEK BETEBEHARRAK EZ BETETZEA ZUZENTZEKO ARAUAK ETA PROZEDURAK

74. artikulua. Printzipio orokorra

74.1. Ikasleek beren betebeharrak ez betetzeak, gutxienez, **jokabide desegokitzat** hartuko da. Ez betetze honek beste guztien eskubideak betetzea galarazten badu **bizikidetzaren kontrako jokabidea** izango da eta zuzenean eskubideren bat urratzen badu **bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea** izango da.

75. artikulua. Jokabide desegokiak

Jokabide desegokiak ondoko hauek dira:

- Justifikatu gabeko ez etortze bat (DBH 1.Zikloan).
- Justifikatu gabeko **3** ez etortze (DBH 2. zikloan).
- Justifikatu gabeko **4** puntualtasun falta.
- Ikastetxeko edozein pertsonarekiko arduragabekeria

- Ikastetxeko materiala edo gainerako kideen gauzak hondatzea zabarkeriagatik gertatzen denean.
- Ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- Ikastetxeko jardueren garapena arinki aldatzen edo oztopatzen duen edozein ekintza.
- Ikastetxeko kideenganako diziiplina eta obedientzia ezako ekintzak.
- Mobilen eta beste tresnak erabiltzea edo piztuta edukitzea. Halaber, ezin izango dira erloju adimendunak desegoki erabili eskola esparru osoan. (AJA honetako 64.2. artikuluan azaldutakoa)
- Eskola-esparru osoan erretzea: eraikinak, patioak, aparkalekuak.
- Ikasleen Eskubide eta Betebeharren 201/2009 Dekretuaren 30. artikuluan aipatzen diren jokabideak, hemen adierazten ez badira ere. (V. ERANSKINA)

76.artikulua. Jokabide desegokiak zuzentzeko prozedura

76.1. Jokabide desegokiak irakasleek zuzenduko dituzte ondoko prozeduraren arabera:

- Irakasleak jokabide desegokiari dagokion inprimakia beteko du. Inprimakiaren kopiak irakasle gelan egongo dira eta baita irakasleen Drive karpetan (Irakasleak → Inprimakiak → Jokabide desegokiak).
- Irakasleak idatziz jokabidea eta berak jarritako neurri zuzentzaileak zehaztuko ditu.
- Irakasleak originala ikasleari emango dio, kopia bat tutoreari eta beste bat ikasketaburuari (Beurko Handin) edo ikastetaburu ondokoari (Beurko Txikin).
- Irakasleak DBHko ikasle bati jokabide desegokia ezartzekotan, derrigorrez jakinaraziko die gurasoei.
- Ikasleak originala etxera eramango du, eta gurasoek sinatuta irakasleari itzuliko dio. Agiri sinatua horrelako agiriak biltzeko karpeta batean gordeko da.

77. artikulua. Jokabide desagokiak zuzentzeko neurriak

77.1 Jokabide desagokiak zuzenketa irakasleei dagokie. Jokabide desagokiaren arabera ondoko neurri zuzentzaileak aplikatuko dituzte:

- Hondamenak eta kalte materialak: ikasleak ordaindu edo konponduko ditu
- Ikasgeletan, pasilloetan, patioetan... higie-ne-arauek ez betetzeak garbitzea, biltzea, ordenatzea... ekarriko du.
- Diziplina-eza, obediencia-eza, adeitasunik gabeko jarrerak, keinu edo hitzak: jokabidearen desagokitasunari buruzko hausnarketa idatzia, aitorpena eta, behar izanez gero, barkamena eskatzea guztion aurrean kalteturiko pertsonari. Mobilak eta beste tresnak: jasoko dira, eta Zuzendaritzara eramango dira AJAko 64.2 artikuluan esaten den moduan.
- Azterketetan kopiatzea edo besteek kopiatzen erraztea: azterketa baliogabetzea eta zuzenean berreskurapenera bidaltzea
- Klaseak oztopatzea:
 - Lanak etxean edo atsedenal-dian egiteko (irakasgaiari buruzkoak, diziplinarekin erlazio-naturiko testu edo artikuluen kopiak edo lanak). Atsedenal-dian ezarritako zigorrak liburutegian beteko dira edo dagokion irakaslearen ardura-pean geldituko dira.
 - Ikaslea lekuz aldatzea.

Kasu guztietan, irakasleak jokabide desagokiari dagokion inprimakia bete beharko du. Hiru jokabide desagoki **bizikidetzaren kontrako jokabidea** dira.

78. artikulua. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa

78.1. Ikasleen eskubideei eta bete-beharrei buruzko indarrean dagoen Dekretuan, 31 eta 32 artikuluetan, aipatutakoak dira. Jokabide hauengatik edozein irakaslek kargu har dezake baina prozedura idatzia hastea Zuzendaritzari dagokio. (V eta VI. ERANSKINAK)

I ERANSKINA

BARNE-ARAUAK BEURKO TXIKIAN

PUNTUALTASUNA

- Lehenengo eta laugarren orduan, Institutuan sartzeko txirrinak jotzean, atea itxiko da. **Hamar minutu** geroago, atea berriro irekiko da berandu heldu diren ikasleak sar daitezen.
- Zaintza-irakasleak ikasleak ikas-geletara bidaliko ditu, beren izenak **berandutze liburuan** idatzi ondoren. **3. berandutzeroa** heltzean etxera deituko du, puntualtasun-falta gurasoei jakinarazteko, eta **4. -era jokabide desegokia** ipiniko die. Klasera sartu baino lehen irakasleari baimena eskatu behar zaio klasea ez oztopatzeko.
- 10 minutu pasa eta gero, ikasleren bat ailegatzen bada, Beurko Handiko eraikuntzara jo beharko du, patioko atea irekita egongo direlako baina B. Txikiko eraikuntzakoak ordea, ez.

EZ-ETORTZEAK

- Ez etortzeak egunero kontrolatuko dira.
- Ez etortzeak gurasoek edo legezko ordezkariak justifikatu behar izango dituzte, **1. zikloan berehala**, tutoreak zigilaturiko eta entregatutako inprimakien bidez. Gaixotasun-kasuan edo aldeztasunetik ikaslea ez dela etorriko jakinez gero, gurasoek edo legezko ordezkariak tutoreari jakinaraziko diote, emailaz edo telefonoz. **DBHko 1. Zikloan**, ikasleen adinagatik, justifikatu gabeko ez-etortze oro jokabide desegokitza da.
- Ebaluaketa osoan eginiko hutsegiteak, justifikatuak zein ez justifikatuak, noten orrian agertuko dira.
- Justifikatu gabeko ez-etortzeak eskola-orduen **%20** baino gehiago osatzen badute, absentismo- prozeduraren aplikazioa ekarriko dute, Udal-zerbitzuei eta Ikuskaritzari jakinaraziz.
- Eskola-ordutegian Institututik sartzeko edo ateratzeko justifikantea beharrezkoa izango da. Ikasleak 1. zikloan irakasleari emango dio justifikantea, eta joan aurretik sarrerako zaintza- liburuan erregistratuko da.

IRAKASLEA FALTA DENEAN

Ikasleak ikasgelan geratuko dira zaintza-irakaslearekin ordu osoan, falta den irakasleak utzitako lana egiten.

MOBILAK

- Telefono mobilak, erabiltzea eta piztuta edukitzea Institutuan **jokabide desegokia** izango da. Tresna konfiskatzea ekarriko du neurri zuzentzaile gisan. Ikasleak berreskuratu ahalko du **klaseak bukatzen direnean** Zuzendaritzan. Berrito gertatzen bada, beste **jokabide desegoki bat** izango du, tresna berriro kenduko zaio eta klaseak bukatzen direnean Zuzendaritzan berreskuratuko du. Hirugarren aldiz jokabidea errepikatuz gero, **larritzat** hartuko da, hau da, **bizikidetzaren kontrako jokabidetzat**. Dagokion prozedurari hasiera emango zaio eta gurasoek/legezko ordezkariak etorri beharko dute mobila hartzera.
- Erloju adimendunak desegoki erabiltzea **jokabide desegokitzat** hartuko da. Bigarrenaz gertatzen bada, berrito jokabide desegokitzat hartuko da, eta erlojua ikastetxera astebetetz ekartzea debekatuko da.
- Hirugarren aldiz jokabidea errepikatuz gero, **larritzat** hartuko da, hau da, **bizikidetzaren kontrako jokabidetzat**. Dagokion prozedurari hasiera emango zaio eta gurasoek/legezko ordezkariak etorri beharko dute erlojua hartzera.
- Edonoren argazkiak edo grabazioak baimenik gabe egitea **elkarbizitzaren aurkako jokabidea edo elkarbizitzari kalte larria** eragiten dion jokabidea izango da.
- Halaber, ezin izango da ordenagailu eramangarria patioetan erabili.

ATSEDENALDIAK

- Errekreoetan ikasleak patiora irtengo dira: ezin izango dira ikasgeletan geratu, eta ezta pasabideetan ere.
- Komunak eskolak dauden bitartean baino ez dira erabiliko.

IKASGELAK, LABORATEGIAK ETA GELA BEREZIAK

- Kurtso hasieran tutorearekin gelaren eta altzarien egoera aztertuko da.
- Ikasgeletan tutoreek, eta laborategietan eta gela berezietan eskola ematen duten irakasleak gela horietako materialaren erabilera onaren arduradunak izango dira, eta hondamenak eta kalteak kontrolatuko dituzte. Intentzioz egindakoak errudunek konpondu edo ordaindu beharko dituzte.
- Irakasleak geletan ordenaz (mahaiak eta aulkiak ondo kokatuta) eta garbiketaz (lurreko paperak bildu, mahaietako eta kutxatiletako material pertsonala ordenatu) arduratuko dira egunero. Irakasleek eginkizun horiek ez betetzeak garbitzaileek gela ez garbitzea ekar dezake, irakasleek bere ardura bete arte.

AZTERKETAK

- **Ikasle bat azterketara etorri ezin denean:**

1. Gurasoek edo tutore legalek telefonoz abisatu beharko dute
2. Ikastetxera itzultzen denean, irakasleak gurasoek sinatutako agiri bana emango die inplikaturako irakasleari nahiz tutoreari.
3. Aurreko bi baldintzak beteta, eta ez etortzearen zergatia gaixotasuna edo gai larria izan bada, irakasleak azterketa beste egun batean egingo dio. Irakasleak egin ez duen azterketa partziala izan bada, Mintegiak erabakiko du.

- **Azterketa baten kalifikazioarekin ados ez badago:**

1. Ikaslea, **2 eskola-egun** igaro aurretik, **irakaslearengana** joan daiteke kalifikazioarekiko desadostasuna adieraztera.
2. Irakaslearen eta ikaslearen artean adostasunik ez badago, irakasleak irakasleari dagokion Mintegira jo dezake. Horretarako, erreklamazio inprimakia bete beharko du (inprimaki horiek atezaintzan egongo dira). Mintegiak modu berean erantzun beharko du, idatziz.

- **Azken kalifikazioetan adostasunik ez badago:**

1. Ikasleak idatziz eskatuko dio irakasleari azterketa ikusteko (atezaintzan dauden inprimakiak erabiliz).
2. Ezadostasuna egotekotan, berrikuspena eskatuko dio, idatziz, dagokion mintegiari eta honek, hurrengo egunean, halaber idatziz jakinaraziko dio bere ebazpen argudiatua, honen kopia bat ikasketa burutzan entregatuko delarik.
3. Ezadostasunak jarraitzekotan, ikasleak Hezkuntza Ikuskaritzara jo dezake.

- **Azterketen kopiak eskatzeko prozedura:**

1. Kopia eskatu baino lehenago ikasleak, proba edo ariketak ikusi behar ditu eta azalpenak jaso.
2. Aurrekoa egin ondoren, gurasoek/haien legezko ordezkariak aukera edukiko dute azterketaren kopia eskatzeko.
 - Eskatzeko epea: azterketako notak (boletinak) banandu eta hurrengo bi eskola-egun, gehienez jota.
 - Inprimaki ofiziala osatuko dute eta kasu guztietan, gurasoek edo legezko ordezkariak eskaera sinatu beharko dute.
 - Azterketaren kopiak erabilera pribatua izango du, eta eskatzaileak azterketa ez zabaltzeko konpromezua hartuko du.
3. Irakasleak ikasketa-buruari eskaeraren kopia emango dio, zuzendaritzan erregistratuta gera dadin. Berandu bezala, astebeteko epean, eskatutako kopiak entregatuko dira.
4. Eskatutako kopiak hartu ondoren, ikaslearen gurasoek/legezko ordezkariak jaso dituztela egiaztatzen duen agiria sinatu beharko dute. Egiaztagarri hau azterketaren kopiak eman dituen irakasleari eman beharko diote; honek, halaber, egiaztagarriaren kopia bat emango dio ikasketaburuari.

IKASTETXEAN LAPURKETA / APURKETAK - PROZEDURA

Ikastetxean lapurreta edo apurketarik gertatuz gero, edonor konturatu bezain pronto, hurbilen duten irakasleari jakinaraziko dio. Ondoren, inplikaturako taldearen tutorea ere jakinaren gainean ipiniko dute.

- Lapurtu edo apurtutako **objektua ikasle batena izanez gero**, Tutoreak bideratuko du arazoa; gertatutakoa argitu eta, ahal den heinean, arazoa konpondu. Beharrezkoa bada, Ikasketa Burutzaren laguntza izango du. Kaltea nork sortu duen jakinez gero, egilea izango da erantzule, eta berari dagokio konpontzea (lapurtutakoa itzuli, apurtutakoa ordaindu...)

Egileak nortzuk diren jakiterik ez dagoenean, ikastetxeak bere esku dauzkan baliabideak erabiliko ditu ahal den neurrian arazoa konpontzeko.

Ikastetxeak ez du inolako erantzukizunik izango, eskola eremuan erabili ezin diren objektuak desagertzen edota hondatzen direnean.

- **Jabetza ikastetxeari dagokionean**, berriz, honako hau izango da jarraitu beharreko prozedura:

Kaltea nork sortu duen jakinez gero:

- Tutoreek gertatutakoaren berri eman beharko dute bai zuzendaritzan, bai inplikaturakoen etxeetan.
- Zuzendaritzak egindako kalteak ebaluatu eta konponketaren aurrekontua eskatuko du.
- Gurasoei eskutitza bidaliko zaie seme-alabak sortutako kalteak eta aurrekontuaren arabera ordaindu beharreko diru kopurua adieraziz.

Egileak nortzuk diren jakiterik ez dagoenean, prozesu bera jarraituko dugu, baina talde osoa izango da erantzule eta denen artean egin beharko dute kalte-ordaina.

Arestian esandakoaz gain, Ikasketa Burutzak erabakiko du gertatutakoa “Jokabide desagokia”, “Bizikidetzaren aurkako jokabidea” edo “ Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide” gisa tipifikatzerik dagoen eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarriko ditu. (Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua 201/2008 abenduaren 2koa, 2.kapitulua.

I ERANSKINA

BARNE-ARAUAK BEURKO HANDIAN

PUNTUALTASUNA

- Lehenengo eta laugarren orduan, Institutuan sartzeko bigarren txirrinak jotzean, atea itxiko da. **Hamar minutu** geroago, atea berriro irekiko da, berandu heldu diren ikasleak sar daitezten.
- Zaintza- irakasleak ikasleak ikas-geletara bidaliko ditu, beren izenak **berandutze-liburuan** idatziko ditu, **3. berandutzero** heldzean etxera deituko du, puntualtasun-falta gurasoei jakinarazteko eta **4.era jokabide desegokia** ipiniko die. Klasera sartu baino lehen, dagokion irakasleari baimena eskatu behar zaio klasea ez oztopatzeko.
- Lehenengo eta laugarren orduan Batxilergoko berandutzeak ugaritzen direnean, egoerak eskatuta atea itxita mantenduko da ordu osoan, eta ikasleak kanpoan geratuko dira hurrengo saiora arte.

ETORTZEA

- Egunero kontrolatuko da.
- Ez-etortzeak gurasoek edo legezko ordezkariak justifikatu behar izango dituzte, 3 eguneko epean, tutoreak zigilaturiko eta entregatutako inprimakien bidez.
- Gaixotasun-kasuan edo aldez aurretik ikaslea ez dela etorriko jakinez gero, gurasoek edo legezko ordezkariak tutoreari jakinaraziko diote, emailaz edo telefonoz.
- **DBHko 2. Zikloan** 3 justifikatu gabeko ez-etortze jokabide desegokia izango dira. Tutoreak dute honen erantzukizuna.
- DBHn justifikatu gabeko ez-etortzeak eskola-orduen **%20** baino gehiago osatzen badute, absentismo-prozeduraren aplikazioa ekarriko dute, Udal zerbitzuei eta Ikuskaritzari jakinaraziz. Ebaluaketa osoan eginiko hutsegiteak, justifikatuak zein ez justifikatuak, noten orrian agertuko dira.
- Eskola-ordutegian ikastetxetik irteteko edota sartzeko ziurtagiria beharko da.

IRAKASLEA FALTA DENEAN

- Ikasleak ikasgela geratuko dira zaintza-irakaslearekin ordu osoan, falta den irakasleak utzitako lana egiten. Ez dago pasabideetan egoterik.
- **Batxilergoan** lehenengo eta azken orduetan irakaslea falta denean, ikasleak etxean geratu edo lehenago atera daitezke. Era berean jokatuko da 2. ordua edo azken aurrekoa denean, baldin eta 1.an edo azkenekoan ere irakaslea falta bada.
- Batxilergoan soilik aurreratu ahal izango dira eskola-orduak lehenago amaitzeko, Ikasketa- buruari baimena eskatu ondoren.

MOBILAK

- Telefono mobilak eta horrelakoak erabiltzea edota piztuta edukitzea Institutuan **jokabide desegokia** izango da. Ttresna konfiskatzea ekarriko du neurri zuzentzaile gisa. Ikasleak berreskuratu ahalko du klaseak bukatzen direnean Zuzendaritzan. Berririo gertatzen bada, beste **jokabide desegokia** izango du, dispositiboa berririo kenduko zaio eta klaseak bukatzen direnean Zuzendaritzan berreskuratuko du.

Hirugarren aldiz jokabidea errepikatuz gero, **larritzat** hartuko da, hau da, **bizikidetzaren kontrako jokabidetzat**. Dagokion prozedurari hasiera emango zaio eta gurasoek/legezko ordezkariak etorri beharko dute dispositiboa hartzera.

- Erloju adimendunak desegoki erabiltzea **jokabide desegokitza** hartuko da. Bigarrenaz gertatzen bada, berririo jokabide desegokitza hartuko da, eta erlojua ikastetxera astebetaz ekartzea debekatuko da.

Hirugarren aldiz jokabidea errepikatuz gero, **larritzat** hartuko da, hau da, **bizikidetzaren kontrako jokabidetzat**. Dagokion prozedurari hasiera emango zaio eta gurasoek/legezko ordezkariak etorri beharko dute erlojua hartzera.

- Norbaiten argazkiak edo grabazioak baimenik gabe egitea **elkarbizitzaren aurkako jokabidea edo elkarbizitzari kalte larria** eragiten dion jokabidea izango da.
- Halaber, ezin izango da ordenagailu eramangarria patioetan erabili. Liburutegian bai lan egiteko bada.

ATSEDENALDIAK

- Errekreoan ikasleak irtengo dira: ezin izango dira ikasgeletan geratu ezta pasilloetan ere.
- Nahi izanez gero, ikasleek liburutegira joateko aukera izango dute, bakarrik ikasteko edo irakurtzeko. Isilik egongo dira, irten gabe txirrinak jo arte. Liburutegira ezin da janaririk, ez edaririk eraman.
- **DBHko** ikasleek gurasoen baimena ekarri beharko dute errekreoan Institututik ateratzeko.
- Komunak bakarrik erabiliko dira errekreoaren hasieran edo amaieran. Gainontzeko denboran DBHko ikasleak eskola-orduetan joan ahal izango dira komunera, eta Batxilergokoak, aldiz, eskola tarteetan.

IKASGELAK, LABORATEGIAK ETA GELA BEREZIAK

- Kurtso hasieran ikasleek eta tutoreak gela eta altzarien egoera aztertuko dute.
- Ikasgeletan tutoreak, eta laborategietan eta gela berezietan eskola ematen duten irakasleak gela horietako materialaren erabilera onaren arduradunak izango dira, eta hondamenak eta kalteak kontrolatuko dituzte. Intentzioz egindakoak errudunek konpondu edo ordaindu beharko dituzte.
- Ikasleak geletan ordenaz (mahaiak eta aulkiak ondo kokatuta) eta garbiketaz (lurreko paperak bildu, mahaietako eta kutxatiletako material pertsonala ordenatu) arduratuko dira egunero. Ikasleek eginkizun horiek ez betetzeak garbitzaileek gela ez garbitzea ekar dezake, ikasleek euren ardura bete arte.

AZTERKETAK

- **Arau orokorrak**
 1. Txirrinak jo baino lehenago amaitu arren, ikasleak ezin izango dira gelatik atera.
 2. Berreskurapenetan **DBHn** taldeko **ikasle guztiak** ikasgelan egongo dira. **3. Batxilergoan** berreskurapena egin behar ez dutenek **1. eta azken** orduetan etxean geratzeko edo lehenago joateko aukera edukiko dute.

- **Ikasle bat azterketa batera etorri ezinean:**

1. Gurasoek telefonoz abisatuko dute.
2. Ikasleak ikastetxera bueltatzen denean gurasoek sinatutako agiri bana emango die inplikaturako irakasleari nahiz tutoreari.
3. Aurreko bi baldintzak beteta, eta ez etortzearen zergatia gaixotasuna edo gai larria izan bada, irakasleak azterketa beste egun batean egingo dio. Ikasleak egin ez duen azterketa partziala izan bada, Mintegiak erabakiko du.

- **Azterketa baten kalifikazioarekin ikaslea ados ez badago:**

1. Ikaslea, **2 eskola-egun** igaro aurretik, **irakaslearengana** joan daiteke erreklamazioa egitera.
2. Ez badago adostasunik, **Mintegiaren aurrean** aurkeztu ahalko du erreklamazioa, idatziz (atezaintzan horretarako dagoen inprimakia erabiliz). Mintegiak modu berean erantzun beharko du, idatziz.

- **Azken kalifikazioen kasuan:**

1. Ikasleak idatziz eskatuko dio irakasleari azterketa ikusteko (atezaintzan dauden inprimakia erabiliz).
2. Ezadostasuna egotekotan, berrikuspena eskatuko dio, idatziz, dagokion mintegiari eta honek, hurrengo egunean, halaber idatziz jakinaraziko dio bere ebazpen argudiatua, honen kopia bat ikasketa burutzean entregatuko delarik.
3. Ezadostasunak jarraitzekotan, ikasleak Ikuskaritzara jo dezake.

- **Azterketen kopia eskatzeko prozedura:**

1. Kopia eskatu baino lehenago ikasleak, proba edo ariketak ikusi behar ditu eta azalpenak jaso.
2. Aurrekoa egin ondoren, gurasoek/haiek legezko ordezkariak badute aukera azterketaren kopia eskatzeko.
 - Eskatzeko epea: notak (boletinak) banatu eta hurrengo bi eskola egunetan, gehienez jota.
 - Inprimaki ofiziala osatuko dute eta kasu guztietan, gurasoek edo legezko ordezkariak eskaera sinatu beharko dute.
 - Azterketaren kopia erabilera pribatua izango du eta eskatzaileak azterketa ez zabaltzeko konprometua hartuko du.

3. Irakasleak ikasketa-buruari eskaeraren kopia emango dio zuzendaritzan erregistratuta gera dadin. Beranduenez, astebeteko epean, eskatutako kopiak entregatuko dira.
4. Behin kopiak emanda, ikaslearen gurasoek/legezko ordezkariak beroriek jaso dituztela egiaztatzen duen agiria sinatu beharko dute. Egiaztagarri hau azterketaren kopiak eman dituen irakasleari eman beharko diote; honek, halaber, egiaztagarriaren kopia bat emango dio ikasketaburuari.

IRAKASLEENGANAKO EZADOSTASUN LARRIAK

Irakasleekin ezadostasun larriak izatekotan, konpontzeko oinarritzko urratsa honakoa da:

- **Berarekin zuzen-zuzenean arazoa lantzea**, eskatuz berarekin hitz egiteko (irakasleak esango du noiz: saio lektiboetan zehar edo beste uneren batean – atsedenaldiran, klase egunaren bukaeran..).
- Arazoak jarraitzekotan eta ikasle-irakasle arteko adostasunik ez balego, **Tutorea** bitartekari izango da.
- Tutorearen eskuhartzearen ondoren, desadostasunak jarraitzekotan, **Ikasketa buruaren** esku geratuko da irakasle eta ikasleen arteko desadostasuna kudeatzearen ardura.

GREBAK

DBHko 3. mailatik gorako ikasleen greba-deialdia egiteko eskubidea gauzatzeko, beharrezko baldintzak eta urratsak :

1. Greba proposamena Ikasketaburuaren aurrean aurkeztuko da idatziz eta sinatuta, gutxienez bi eskola-egun lehenago. Idatzian nork deitzen duen, data, ordua eta programaturiko ekintzak adierazi behar dira.
2. Proposamenak ezarritako epeak errespetatzen badira, eta greba egiteko zergatiak ez badute Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikulua eta EAE-ko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrak buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak edo AJAK babesten dituen elkarbizitza ereduaren aurkako ekimenik babesten, aurrera jarraitu ahal izango du.
3. Grebarako proposamena Delegatuen Batzordean eztabaidatuko da, eta Delegatuen %50aren onarpena beharko du.
4. Proposamena ikasgeletan irakurri eta azalduko da, eta isilpean

bozkatuko da irakaslearen aurrean. Bozketa baliokoa izateko ikasle-kopuruaren **erdia gehi bat** beharrezkoa da. Greba- proposamena **erabateko gehiengoz** onartuko da eta aldeko emaitza ez da inoiz loteslea izango.

5. Bozketaren emaitzak akten bidez bildu eta Ikasketa-Burutzara eramango dira. Aktetan agertuko dira:
 - bilera eta bozketa non egin den
 - zein ordutan hasi den
 - bileran egon diren ikasleen kopurua, baiezko botoak, ezezkoak eta abstentzioak
 - irakaslearen sinadura
6. Aldez aurretik programaturiko azterketak eta eskolaz kanpoko irteerak errespetatuko dira.
7. Zuzendaritza-taldeak gurasoei informazioa bidaliko die idazki ofizial baten bidez, berauek sinatuta bueltatuko dutena, greba egiteko gurasoen baimena ezinbestekoa izango delako.
8. Ikasleriaren Eskubide eta Betebeharren Dekretuaren arabera, prozedura ondo eginda badago, greba eskubidea da eta ez du ez-etortzerik ekarriko, baina irakasleek ez dute klasea berriro eman behar.

IKASTETXEAN LAPURKETA / APURKETAK - PROZEDURA

Ikastetxean lapurreta edo apurketarik gertatuko balitz, edonor konturatu bezain pronto, hurbilen duten irakasleari jakinaraziko dio. Ondoren inplikaturako taldearen tutorea ere jakinaren gainean ipiniko dute.

- Lapurtu edo apurtutako **objektua ikasle batena izanez gero**, Tutoreak bideratuko du arazoa; gertatutakoa argitu eta, ahal den heinean, arazoa konpondu. Beharrezkoa balitz, Ikasketa Burutzaren laguntza izango du. Kaltea nork sortu duen jakinez gero, egilea izango da erantzule eta berari dagokio konpontzea (lapurtutakoa itzuli, apurtutakoa ordaindu...) Egileak nortzuk diren jakiterik ez dagoenean, ikastetxeak bere esku dauzkan baliabideak erabiliko ditu ahal den neurrian arazoa konpontzeko. Ikastetxeak ez du inola ere bere gain hartuko, ikastetxean erabiltzea debekatuta dauden objektuen desagerpena edo hondatzea.
- **Jabetza ikastetxeari dagokionean**, berriz, honako hau izango da jarraitu beharreko prozedura:

Kaltea nork sortu duen jakinez gero:

- Tutoreak gertatutakoaren berri eman beharko dio Zuzendaritzari eta inplikaturakoen etxekoei.
- Zuzendaritzak egindako kalteak ebaluatu eta konponketaren aurrekontua eskatuko du.
- Gurasoei eskutitza bidaliko zaie seme- alabak sortutako kalteak eta ordaindu beharreko diru kopurua adieraziz.

Egileak nortzuk diren jakiterik ez dagoenean, prozesu bera jarraituko dugu, baina talde osoa izango da erantzule, eta denen artean egin beharko dute kalte- ordaina.

Arestian esandakoaz gain, Ikasketa Burutzak erabakiko du gertatutakoa “Jokabide desagokia”, “Bizikidetzaren aurkako jokabidea” edo “ Bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide” gisa tipifikatzerik dagoen eta dagozkion neurri zuzentzaileak ezarriko ditu. (Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua 201/2008 Abenduaren 2koa, 2.kapitulua.

II ERANSKINA:

IKTko ERABILERA ONARGARRIAK ETA ARDURATSUAK

A.- TESTUINGURUA

Ikastetxeak Google kontu pertsonalizatu bat eskainiko die ikasleei, ikastetxean ikasiko duten denboraldirako, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan eta komunikazio prozesuetan tresna lagungarria izan daitekeelako.

B.- HELBURUAK

Jarraian azalduko diren erabilera arauen helburuak honako hauek dira:

- Ikasleak IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) modu eraginkor eta seguru batez erabiltzearen onurez jabetzea.
- Ikastetxean, oro har, IKTen erabilera egokia, segurua eta arduratsua arautzea.
- Ikasleek lan tresna lez erabiltzen duten gailuaren erabilera egokia arautzea.
- Interneten norberaren burua eta bestena babesteko moduen inguruko heziketa eskaintzea ikasleei.
- Ezjakintasunagatik edo asmo txarrez egindako IKTen erabilera txarra eragozte.

C.- ERABILERA ARAUAK

C.1.- ARAU OROKORRAK

- Ikastetxean, heziketa xedearekin soilik erabiliko dira IKTak.
- Ikastetxeak eskainitako IKT baliabideak ez dira erabiliko jazartzeko, iraintzeko edo edozein eratako kalteak eragiteko balio dezaketen materialak sortzeko, igortzeko, erakusteko edo argitaratzeko.
- Erregistro beharrik ez duten Internet baliabideak erabiltzea hobetsi eta sustatuko du ikastetxeak. Erregistratu behar izanez gero, ahal den datu gutxien ematea gomendatuko da.

- Irakasleak ikasgaietan erabiltzen diren aplikazioen erabilera egokiaz informazioa emango die ikasleei.
- Ikastetxean baimendutako gailuak bakarrik erabili ahalko dira.
- Ikasgaietako gelako jardueretan, ikasleen Internet nabigazioa ikuskatu ahal izango du irakasleak.
- Ikastetxeko arduradunek (irakasle, zuzendaritza e.a.) ikastetxearen gailuetan Internet nabigazioaren ondorioz ikasleek deskargatu dutena edo nabigazio historialak ikuskatzeko eskubidea izango dute, eskola lanerako tresna diren neurrian.
- Ikastetxeko norbaitek eduki desegokiak aurkitzen baditu, gailuetan edota Internet nabigazioan, irakasleari edo Digitalizazioaren arduradunei azalduko die, hauek arazoa bideratu eta zuzendu dezaten.
- Ikastetxeak ikasleen irudiak nahiz lanak Interneten argitaratzeko, familiei baimena eskatuko die.

C.2.- SEGURITASUNA

- Hezkuntza Sailak, Premia sarearen bidez, ikastetxeko gailuen antibirusa eta web nabigaziorako iragaziak eguneratuta edukitzen ditu.
- Beste pertsona batzuk norberaren kontuan edo datu pertsonaletan sar ez daitezen, ordenagailua erabiltzen amaitu ondoren, beti itxi behar da sareko erabiltzailearen, saioa nahiz ikastetxeak eskainitako Google kontuaren saioa.
- Pasahitz "segurua" erabili behar da (pasahitz seguruen ezaugarriak dira zenbakiz, letraz nahiz sinboloz osatuta egotea, 8 karaktere edo gehiago edukitzea, eta sistema bakar batean erabiltzea).
- Zorrotz zaindu behar dira ikastetxeko kontuaren datuak, eta ez zaio inori eman behar pasahitza; azken batean, kontu horrekin egiten denaren erantzukizuna kontuaren jabeak duelako.
- Beste norbaiten datuak (erabiltzailea eta pasahitza) erabiliz, ez da inoiz inoren identitatea ordeztu behar.
- Beste pertsonaren batek sarbide-datu pertsonalak eskuratu dituelako susmoa, eta ondorioz, nortasuna iruzurrez ordezteko arriskua dagoelako susmoa izanez gero, berehala tutore edo Digitalizazioaren arduradunari jakinarazi behar zaio.
- Ikastetxeak Interneten arriskuak, hauek nola eragotzi eta IKTen erabilera

seguru baten inguruko heziketa eskainiko die ikasleei.

C.3.- KOMUNIKAZIOA

- Ikastetxeko zereginetan, barne nahiz kanpo komunikazioan eta gela jardueretan, beurbobhi.com domeinuko Google kontua baino ez dute erabiliko dute ikasleek.
- Ikastetxe barneko komunikazio digitaletan, ikasleak bere taldeko ikaskideekin edo bere irakasleekin jar daitezke harremanetan, ez beste inorekin, irakasle edo arduradunen baten baimen zehatza ez badute.
- Ikastetxeak jokabide eta babes arauak eskainiko dizkie ikasleei, komunikazio eraginkor, egoki eta seguru bat eduki dezaten.
- OINARRIZKO NETIKETAK (Interneten zaindu beharreko arauak):
 - Norberarenganako nahiz besteenganako errespetua izan.
 - Komunikazio mezuetan hizkuntza zuzena, atsegina eta errespetuzkoa erabili.
 - Norberaren identitatea nahiz pribatutasuna eta besteena babestuko da. Besteen mezuak edota fitxategiak ez dira irakurriko, eta besteen informazioa (argazkiak e.a.) ez dira argitaratuko baimenik gabe.
 - Jabetza intelektualaren errespetatu eta babestuko da.

C.4.- ORDENAGAILUAREN ERABILERAREN ARAUAK

IKASGELAN

- Ordenagailuak ikasgelan eskatutako **lanak egiteko soilik erabiliko dira**, inolaz ere ez jolasteko edo desegokiak diren webgunetan nabigatzeko. ■ **Irakasleak agindutako lanarekin lotutako** aplikazioak, webguneak edo bestelako edukiak baino ezin daitezke eduki irekita.
- Taldeko lan giroa ez oztopatzeko ordenagailuak **soinurik gabe** egon beharko du beti, irakasleak aurkakoa adierazten ez duen bitartean. ■ Ezin da sartu edo erabili gelan **Sare Sozialik edo Chat-ik**; irakasleak baimena emanaz gero, baino ez dira erabiliko.
- Internet-bilaketetan **eduki desegokiak** agertzen badira, berehala itxiko da bilaketa hori.

- **Irakasleak** susmatzen badu ikasle bat erabilera desegokia egiten ari dela ordenagailuarekin, **ikaslearen gailuaren historiala begiratzeko eskubidea** izango du.

D.- ERABILERA DESEGOKIARI ERANTZUNAK

Arau hauek betetzen ez badira, oro har, kasuan kasuko egoera aztertuko da eta ondorio batzuk ezarriko dira. Ondorio hauek honelakoak izan daitezke:

- Erabilera desegokiaren aurrean debekatuko da ordenagailuaren erabilera. Halaber, ezin izango da ordenagailua patioetan erabili baina bai liburutegian, lan egiteko bada.
- Arauak ez errespetatzea jokabide desegokitzat hartuko da.
- Jokaera desegokia errepikatuz gero, aste betez debekatuko da ikasgelan ordenagailua erabiltzea, edota diziiplina neurriak hartuko dira.
- Erabilera desegokia mobilekin, erloju adimendunekin edota beste gailuren batekin gertatzen bada, AJAren 64. artikulua aplikatuko da.
- Legez kanpoko jardunei dagokionez, ikastetxeak eskumena duen autoritateari jakinarazteko eskubidea erabiliko du.

III ERANSKINA:

KUDEAKETA SOLIDARIOAREN PROGRAMAREN TESTU LIBURUAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. Testu liburuen Kudeaketa Programan parte hartzen duen ikasle bakoitzak ikasturte hasierako aurkezpen egunean Programan sartutako liburu-sorta bat jasoko du, tutoreari Hezkuntza Sailak agindutako zenbatekoaren ordainketa-agiria entregatu ondoren.
2. Ikasleak **astebeteko epea** izango du liburu bakoitza plastikozko estalki ez eranskor batez babesteko. Estalkiaren **kanpoko aldetik etiketa bat** jarriko du **izena, bi abizenak, maila eta taldea** idatziz.
3. Institutua da liburuen jabe eta mailegu gisan uzten ditu. Ikasleak eguneroko erabileran zaindu beharko ditu, baloratzuz eta errespetatuz. Ez dago idazterik edo marrazterik liburuetan. Ikasleak ezin du liburu bat ere elkar trukatu ikaskideekin eta bere liburu-sorta osoa mantenduko du. Ikasturte amaieran liburuak egoera onean atzera emango dira berrerabili ahal izateko.
4. Ikastetxeak ikasturte amaieran liburuen egoera aztertuko du. Libururen bat galduz gero edo egoera txarrean bueltatzen bada, familiak ordainduko du. Ordainketa-ezak familia hurrengo ikasturtean Programatik kanpo geratzea ekarriko du.
5. Liburuak nahita hondatzea jokabide desegokia izan liteke. Zuzendaritzak jokabideari dagokion neurri zuzentzailea erabakiko du, Araudi honetan agertzen diren neurrietatik.
6. BEURKO BHiko Mintegiek Programan sartutako liburuak 4 urtez ez aldatzearen konpromisoa hartzen dute, curriculum ofiziala aldatzen ez bada.

IV ERANSKINA: JANTOKIKO ARAUAK

1. Janariarekin jarrera arduratsua eduki behar da. Janariarekin jolastea edo jakiak behar da. Janariarekin jolastea edo jakiak botatzea edo arbuiatzea zuzengabea da. botatzea edo arbuiatzea jarrera desegokia da.
2. Ordenan sartu behar da, txanda bakoitza dagokion orduan eta gutxienez 20 minutuz dagokion orduan, eta gutxienez 20 minutuz egon beharko du jantokian. Txanda egon beharko du jantokian. Txanda bakoitzak, askoz jota, 30 minutu izango ditu bakoitzak, askoz jota, 30 minutu izango ditu bazkaltzeko.
3. Beharrezkoa da garbitasunez jatea, pazientziaz jokatzeko, mahai-tresnak zuzen pazientziaz jokatzeko, mahai-tresnak zuzen erabiltzeko, monitoreei laguntzeko eta erabiltzeko, monitoreei laguntzeko, eta jezarrita egotea bukatu arte.
4. Plater bakoitzetik erdia gutxienez jaten saiatu behar da.
5. Jantokitik ezin da janaririk atera.
6. Jankide bakoitza arduratuko da bere esparrua garbi mantentzen, eta jantokitik esparrua garbi mantentzen, eta jantokitik irten baino lehenago, gauza bakoitza dagokion lekura eramango du eta ahaleginak egingo dira, iraunkortasun irizpideei jarraituz, hondakinak sailkatzeko eta birziklatzeko. Monitoreek jankide arduradunak izendatuko dituzte azkenengo garbiketan eta hurrengo txandarako mahaien prestaketan laguntzeko.
7. Erabat debekatuta dago goiko pasabideetara edo geletara joatea.
8. Langileekin eta beste jankideekin errespetuz jokatzeko ezinbestekoa da. Irainak, isekak edo erasoak elkarbizitzaren kontrako edo elkarbizitzari kalte larria eragiten dion jokabideetat har daitezke.
9. Jantokira ez-etortzeak gurasoek justifikatu beharko dituzte, ohar baten bidez (jantoki@beurkobhi.com). Jantokira justifikatu gabeko ez-etortzeak beste edozein ez-etortze bezala kontsideratuta daude.

10. Agerikoa da jantokia institutuko beste esparru bat dela; beraz, jokabideei dagokienez, AJAn (Antolakuntza eta Jarduera Araudia) jasotako arau berdinak aplikatuko dira.
11. Dieta berezia jaso ahal izateko mediku txosten bat aurkeztea derrigorrezkoa da.
12. Heziketa eta elkarbizitzaren arau honen kontrako portaeren errepikapenak jantokia erabiltzeko eskubidea galtzea ekarri ahal izango du, erabakiko den denbora tartean.
13. Jantokian apuntatutako ikasleek ezin izango dute eguerdian ikastetxetik atera.

V ERANSKINA: ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETUA

(201/2008)

30. artikulua.- Jokabide desegokiak.

1.- Hona hemen jokabide desegokien zerrenda:

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak.
- c) Ikastetxeko instalazioei, ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean.
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.
- g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetza-arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

2.- Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.l) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

31. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideak.

1.- Hona hemen ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zerrenda:

a) Ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbaierik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea. d) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legeko ordezkariarentzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.

i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.

k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkutatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabideetat hartzen ez bada.

m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

2.- Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.n) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

32. artikulua.- Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak.

1.- Hona hemen bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zerrenda:

- a) Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.
- c) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzera bultzatzea.
- f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldezturik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkutitzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea.

2.- Ikastetxeek, beren Antolakuntza eta Jarduera Araudietan edo Barne Araudietan, artikuluko honetako 1.ñ) idatz-zatian argi eta garbi sar daitezkeen jokabideen adibide zehatzak bildu ahal izango dituzte.

33. artikulua.- Ikastetxetik kanpo egindako jokabide edo egintzengatiko erantzukizuna.

Aurreko artikuluetan bildutako jokabideak eskolako eremutik edo ordutegitik kanpo egiten direnean ere zuzenduko dira, betiere ikastetxeak programatutako jarduera osagarrien edo eskolaz kanpoko jardunean egiten badira, jangela- edo garraio-zerbitzuak erabiltzen diren bitartean, edo eskolako jarduerarekin kausa ondorio harremana dagoela egiaztatzen denean.

VI ERANSKINA:

ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN DEKRETUA

NEURRI ZUZENTZAILEAK

(201/2008)

3.ATALA. HEZKUNTZAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA DESEGOKIAK, AURKAKOAK EDOTA BIZIKIDETZARENTZAT LARRIKI KALTEGARRIAK DIREN JOKABIDEEN BESTE ONDORIO BATZUK

34. artikulua [Jokabide desegokien zuzenketa.](#)

Honako neurri hauetako baten edo gehiagoren bidez zuzenduko dituzte jokabide desegokiak:

1. Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
2. Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
3. Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
4. Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
5. Zuzendariaren, ikasketaburuaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.

35. artikulua [Ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabideen zuzenketa.](#)

Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.
2. Ohartarazpen idatzia.
3. Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
4. Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

5. Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.

6. Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.

7. Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

8. Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

9. Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

36. artikulua Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen zuzenketa.

Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

1. Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

2. Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

3. Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

4. Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2. Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

37. artikulua [Ikastetxez aldatzeko proposamena.](#)

Ikastetxe-aldaketa ondoko kasu hauetan proposatu ahal izango da:

1. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ikasleari gutxienez bi aldiz zuzendu bazaio, betiere 1.n) idatz-zatian zehaztutakoa salbu, eta lehen zuzenketa gauzatu zenetik ehun eta hogeik eskola-egun baino gehiago igaro ez badira.

2. Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragin dion jokabideak berdinen arteko tratu txarrak edo sexuagatiko jazarpena berarekin badakar.

3. Ikastetxeko irakasle bati eraso egitea.

4. Salbuespenez, hezkuntza komunitateko beste kide batzuei eraso larriak egin izana.

Aurreko atalean zehaztu diren jokabideetakoren baten erantzule den ikaslea adinez handi bada edo Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko ikasketak gauzatzen ari bada, ikaslea urrutiko hezkuntzako ikastetxe batera, gaueko ikastetxe batera edo pertsona helduen hezkuntzarako ikastetxe batera aldatzea proposatu ahalko da.

3. Ikaslea ikastetxez aldatzeko proposamena Lurraldeko Hezkuntza Ordezkarari helaraziko zaio. Azken horrek Hezkuntzako Ikuskaritzari txostena bidali eta irtenbiderik egokiena zein den erabakiko du.

38. artikulua Etengabeko ebaluazioa egiteko ezintasuna bertaratze hutsegiteak behin eta berriz egiteagatik.

1. Aurreko artikuluen arabera dagozkion neurri zuzentzaileak aplikatzeko aukera bazter utzi gabe, bertaratze-hutsegite ugari egin dituztela-eta etengabeko ebaluaziorako ikastetxeak onartutako metodoak eta irizpideak aplikatu ezin zaizkien ikasleek ez-ohiko probetara aurkeztu beharko dute, ebaluazioa egin diezaieten.

2. Ikastetxeek ezarriko dute proba horien nolakotasuna, betiere dagokion arloa, irakasgaia edo modulua kontuan izanik eta indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

39. artikulua Oinarrizko gaitasun sozial eta hiritarra ebaluatzearen ondorioak.

Gizarte -eta herritartasun- oinarrizko gaitasuna zer neurritan atxiki den ebaluatzeko irizpideak finkatzeko orduan, irakasle-taldeek edo dagozkion departamentu didaktikoek kontuan hartu ahal izango dute kontrakoak nahiz bizikidetza-erantzak larriki kaltegarriak diren jokabideak zuzentzeko neurriek xede dituzten hezkuntzako helburuak bete ez izana.

40. artikulua Izan daitezkeen kalteengatiko erantzukizuna.

Dagokionean aplika daitezkeen neurri zuzentzaileak alde batera utzi gabe, ikasleen erantzukizuna da ikastetxeko instalazioetan, altzarietan edo materialean, edo ikaskideen gauzetan, eragindako kalteak konpontzea, kalte horiek nahita edo zabarkeria larriki edo ikastetxeak onartutako bizikidetza-arauen aurkako portaeraren ondorioz egin badituzte. Horren orde, egin beharreko konponketen kostu ekonomikoa beren gain hartu ahal izango dute, eta beren gurasoak edo legezko ordezkariak izango dira erantzule subsidiarioak legeek aurreikusitakoaren arabera.

41. artikulua Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak.

Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

1. Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.
2. Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.
3. Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta 3.3 artikuluan zehazturiko oinarritzko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.
4. Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, erantzukizuna gutxiagotzen dute. Hona hemen:

1. Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.
2. Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.
3. Materialari edo ondasun higigarriei edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.
4. Jendaurrean barkamena eskatzea.
5. Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.
6. Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, erantzukizuna handituko da eta eskubideak zuzentzeko neurri murritzaleagoak erabiliko dira:

1. Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.
2. Kaltea nahita egina izatea.
3. Kaltea apropos egitea edo alde zuzenetik prestatu ondoren egitea.
4. Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.
5. Eskola-arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

III. KAPITULUA JOKABIDEAK ZUZENTZEKO BIDE ALTERNATIBOAK

42. artikulua Xedapen orokorrak.

1. Ikastetxeetako zuzendariek ahalegina egingo dute bizikidetzaz arazoak konpontzeko, Dekretu honetako IV. kapituluaren araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, kapitulu honetan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.
2. Lehentasunez, zuzendariek ahalegina egingo dute alde hauek adiskidetu daitezkeen: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.
3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari (jokabide horiek bizikidetzaren aurkakoak izan behar zuten edo bizikidetzari kalte larria eragiten diotenak).
4. Bizikidetzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilita zuzendu ondoren, soilik ondorio hauetarako jasoko dira ikastetxeetan: ikasleak aurrez hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko.

43. artikulua [Prozedurarik gabeko neurri hezitzaileak.](#)

1. Bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariek, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo dute ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

1. Adin nagusikoak diren ikasleak izan badira ikastetxearen bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.

37. artikuluan adierazitako jokabideak eman badira.

2. Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko bizikidetzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

44. artikulua [Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako.](#)

Adiskidetzarik gertatzen bada, eten egingo da prozedura. Adiskidetzea izango da, gertakari hauek ematen badira:

1. Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea bizikidetzaren aurkakoa dela edo bizikidetzari kalte larriak eragiten dizkiola, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza komunitateko gainerako kideen eskubideak.

2. Barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.

3. Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.

4. Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

Adiskidetzeak ez du bertan behera utziko prozedura 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

45. artikulua [Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako.](#)

1. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira bizikidetzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haiek konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

46. artikulua [Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik.](#)

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 37. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

47. artikulua [Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea.](#)

1. Prozedura ebatzi eta kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurriak baldintzapean etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetzealdia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, interesduna adin txikikoa bada, haren lege-ordezkariek eskatuta, betiere ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela aldez aurretik egiaztatuz gero.

2. Zuzendu beharreko jokabidea berriz gertatuz gero, berrerortzetzat hartuko da, zigorra bertan behera geratuta ere.

3. Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari edo Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

48. artikulua Bizikidetzarako konpromiso hezigarriak.

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako adiskidetzerik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak bizikidetzakonpromiso hezigarria sinatuta; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu behako dute. Bizikidetzakonpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere.

2. bizikidetzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta bizikidetzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde, ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3. Bizikidetzakonpromiso hezigarriak ez betetzeak etendako neurri zuzentzaileak berehala aplikatzea ekarriko du.